

1341 723

EUSKERAZCO AGRICULTURA

NECAZARI EUSCALDUNENTZAT

GUZTIZ EGOQUI DATOCEN EJERCICIOAC

ERACUSTEN DITUANA

ETA

CARLOS IRUGARRENAREN ESPAÑAR-MALLA ERREGUEZCO

AGUIRIYAN ZALDUN DAN ALZAGA-CO NECAZARI

JUAN DOMINGO GOITIA ETA GARMENDIAS

ESCRIBITUBA.


18
0

1/011
4-46
1886



TOLOSAN:

Eusebio Lopez-en moldizteguian
1886 garren urtean.



AGRICULTURA EUSQUERAZCOA.




EUSQUERAZCO AGRICULTURA

NECAZARI EUSCALDUNENTZAT

114-46

GUZTIZ EGOQUI DATOCEN EJERCICIOAC

ERACUSTEN DITUANA



ETA

LOS IRUGARRENAREN ESPAÑAR-MALLA ERREGUEZCO AGUIRIYAN

ZALDUN DAN ALZAGA-CO NECAZARI

JUAN DOMINGO GOTTIA GARRIBONDIA

ESCRIBITUBA.



TOLOSAN:

Eusebio Lopez-en moldizteguian
1886 garren urtean.

ES PROPIEDAD DEL AUTOR.

NECAZARI EUSKALDUNARI.

Icusiric gu bici gueran erreinu España onetaco Gobiernuac deseoc arguitzen diz- quigula eta gañera gure provinci euskal- dun oetaco Diputadu jaunac, nola lenago- co demboratan egon ciranac ala orain dau- denac, ceñac eguiten diran gure guraso edo guraso ordezo becela eta guraso onac be- ren ondorengoari eracasi nai izaten dien becela, jaun oyec gure ongui eracutsi eta gu mehoratzeco arguitu dituzten dese- o aundiac eta eguin dituzten empeñoac, ba- da lenengo aldian ipini edo jarri zuten ne- cazari esamina, ceñari deitzen citzayon Esposicioa, gauzaric onenac emen premia- tzen edosaria artutzen icusita, gañeracoac obetoago sayatu edo eguin cezaten alegui- ña gauza onac eguitera; baña beguiraturic ongui esquina gucietatic, juzgatu izandu da apostu bat becela dala necazari esami- na edo Esposicioa, cergatic ez dan billa-

tzen necazarien artean iñor ere costumbre orretzaz mejora izaten duanic; gueroago ifiñi zuten eche bat deitzen zana necazarien modelo, eta eche onetan jarri cituzten necazari gendearentzaco guiari edo maisuac icasaraci cetzaten necazaritzan, deseononetaco ideac ciran oyec guciac, auda guri ongui eracasi edo eracusteagatic, eta gauza batequin billatzen da eguintutela mejora andia, eta da emengo ganaduac mezclatzea beste paraje edo beste clase mudatuaquin; onezaz gañera ere izango dira advertenci edo eracusmenac ifiñiac gure necazari guiari oyec; baña esan ditekue ez dala irichi necazari ascorengana beste arguitasun edo idearic, cergatic comeni zan necazarien artean partitu edo zabaldu ciran liburuac eusqueras escribituac izatea, ongui comprenditu eta provechosoac necazari euscaldunentzat izate ezqueroz eta gañera ugariago zabaldu edo partitutzea, bada nic leitu nuan liburu bat gure necazari guiari edo maisu batec escribitua; baña ez nuan ongui comprenditu, cergatic cegoan escribitua erderaz eta francesez; eta beste bat leitu izandu det Oli-

ban jaunac escriptua, eta premiata edo sariata Madrid-co concurso generalean; eta ez det dudarik ifinzen izango dala ongi eracusten duana eta provechosa provinci edo paraje ascotaraco; baña guchi valio duana da euscal errietaraco, cergatic billatzen zayon bi falta, ceñac diran; bat liburu orren ideaz valiatzeco erdera edo gaztelania ez dan ongi comprenditzen necazari euscaldunen artean, eta bestea, necazarizan oso ejercicio diferentea dalaco beste provinci ascotaco aldean euscal errietan, bada icusten degu emengo necazarien artean, erderaz edo beste hitzcunzaren batean escriptuac izan ezquero liburua izan arren arguitasun andietacoa edo ongi eracusten duana, comprenditzen ez dala beraren ideac artutceco eta ongi aprovechatceco moduan, cergatic liburu oyetzaz ongi comprenditzen dutenac aprovechatceco moduan euscal errietaco necazarien artean chit guchi dira, eta lenago esan dedan repartitu ciran liburu banaca ayec ere egongo dira gueyenac Secretariataco archivoren batzuetan, eta baldin badaude ongi comprenditzen dituzten necazarien

escuetan, dudarie gabe izango dira icena necazaria izanagatic necazaritzan caso andiric eguin gabe bici ditezqueanac edo bici diranac, eta onegatic deizquiot comenizala lenago eta comeni dala orain necazaritza aurreratceco euscal errietan zabaldu tcea liburu ugariago eta edocein iracurle euscaldunac ongui enteratceco moduan; comparacio bat eguin dezaquegu medicu batequin; arguitcen da erri batean medicu bat eta gaisoac ere bai, baña ez da beti allegatzen guztiaac visitacera, ta gañera visitatcen dituan ari aplicatcen badie erremedioac francesez, latiñez edo beste hitz-cunza erremedioac artu bear dituanac eta gaisozayac entenditcen ez dutenean, ecin diteque sendatceco moduan valiatu era onetan gaisoa medicuaren erremediocaz, eta gure necazari maisu edo guiariaren lanac ere era edo guisa onetan guertatu ciran, au da necazari euscaldunac comprehenditu gabe valiatceco moduan; baña esan dezaquegu prueba berri ascotan sartcen dan guizona, eta seguroena da ascotan edo gueyenetan gaizqui ateratcea, ala guciaz ere batean bacarric ongui atera arren

guertaliteque beste gucietaco perjuicioac erremediatcea eta mejioratcea ongui atera zayon pruebarequin bacarric. ¿Ez ote ciran beñ bacarric ere ongui atera, edo ez ote zuten beñ ere edo ecertan asmatu gu-re necazari guiari edo maisu ayec? Bai, lenago esan dedan becela asmatu zuten ganaduac mezclatzearequin, bada ni enteratuta, nagonez necazari guiari ayen tartecoan ecarri zuten cherri clase mudatua, cherri ardi bat eta beste apote bat Franciaco Paristic eta cherri oyec ecarri cituenac izan bear dute Don Salustiano Olazabal eta Don Antonio Altuna, lenengoa Irun-go semea eta bestea Azcoitia-coa. Cherri casta ori deitzen zayo modelo casta, eta casta au beste emen lenago cegon arequin mezclatuta, cobratu ote da ecer beste prueba ascotan gastatu zan ayetaraco? Bai, anciña cobratu ciran Provinci onetan modeloan eguin ciran castu guciac cerri clase orrequin bacarric, bada Guipuzcoan ez cegoan bertaco cherri belar lucea beste castaric eta beste modelo casta ori ecarri zanetic ascoz gueyago valio izandu cherriac gorputz igualean casta orretacoac;

au da, modelo castac, eta contua atera besteric ez dago urtean cembat milla cherri ateratzen dan Guipuzcoatic campoco provincietara. Gañeracoan ecer guchi eracutsi dutela iruditzen zat oraindaño izandu diran necazari maisu edo guiariac, eta nic ere falta edo necesidade guciac ez ditut erremediatu ta cumplituco, cergatic ez naicen necazari bat besteric eta necazarien artean ez besteric baño particularragoa, ez eta ere jaquinsuagoa; baña au gucia onela izan arren, encargatu izandu naute, aplicacioa icusiric, arguitaratu ditzadala advertenci batzuac liburucho batean esribituric: gañera negonec icusiric nere dembora labur onetan euscal provincietaco Diputacioac cembateraño empeñatu izandu diran guri ongui eracusteagatic, eta eusqueraz iñorc ecer arguitaratzen ez duana necazarizaren gañean, izanic munduan lenengo officioa eta gucietan bearrena, iritzi izandu zat ongui izango litzaqueala arguitaratzea advertenci batzuac.

Ona emen, bada, ni muguierazo nauben arrazoyac liburucho onetan advertenci labur batzuac necazari euscaldunantzaco es-

cribitzea, eta eguingo det modu onetan: sei partetan, comprenditcen dituztela ogueita iru advertenci, ceñac uste dedan servitu dezaquetela, beste norbaitec obeagoac arguitara bitartean, necazari euscaldunantzaco.



LENENGO PARTEA.

LENENGO ADVERTENCIA: CEÑETAN ERACUSTEN
DAN MUNDUAN LENENGO GUIZONA CEÑ IZANDU
ZAN ETA CEREN BITARTEZ DITUGUN NEQUE TA
TRABAJUAC.

Munduan lenengo guizona, ceñari dei-
tzen citzayon Adan, criatu edo eguin zuan
Jaungoicoac eta eman cion emazte-tzat
Eva. Jaungoicoac Adan eta Eva paradi-
soan jarri cituan orain iya sei milla urte;
Evaç jan zuan Jaungoicoac devecatu cien
arbolaren fruta, demonioac engañatuta eta
jan eratci cion Adani ere: desobediencia-
co pecatu onegatic bota cituan Jaungoi-
coac paraisotic campora gure lendabico
guraso Adan eta Eva, sujetatuaz ayec eta
ayen ondorengo gu gucioc nequera, gaiso-
tasunetara eta eriotzara. Ona, bada, ne-
quea nundic datorquigun eta guztioç pro-

batzen degu, bacoitzac bere empleo edo oficioan, eta guchiena ez guc necazariac, cergatic oraindañoco gure oficioco guciac eta modu berean gu ere, beti jarduten edo ari gueran lurrac eciñ ondo baneaturic edo ecin ongui componduric eta ecin gozaturic.

Necazariac igarotzen du bere bicitza lurre ecin vencituric, eta ascotan beraren calidadeac ecin asmaturic edo ecin ezaguturic, izanic necazariza munduan lenengo oficioa, preciso edo bearrena, eta bera utzirik ecin sostendu ditequeana guizona, bada oficio onen bitartez lurrac mantendu bear gaitu beraren gañean bici gueran artean guztio. Necazarizaco oficioa da nequeric aundienetaco bat, eta necazarien eguiñetic ateratzen da beste oficio ascotarraco gaya; baña necazarizan ongui eguiteco ez da asco lurrarequin asco necatzea, bada oficio onetan ere, beste oficioetan izango dan becela, diferenci andia dago bere oficioco gayaquin nola ideatzen dan, edo cer modutan gobernatzen dituan bere oficioco gayac. Eta beragatic atrebituco nitzaque esatea iñore ecin eracusi leyo-

queala nola lana egin bearduan edo nola baneatu bear dituan bere soro edo terrenoac necazariari, baicic bacar bacarric advertitu leyoqueana da nola edo cer inodutan ideatu bear dituan necazarizaren gobiernoraco dauzcan gayac. Lurrac dituzte diferenci aundiac samur eta zalldasunean, otz eta beroan, eta lagore edo frutu diferenteac emateco calidadeetan, bada oec eta beste motivo gueyago gatic guertatzen da lurrac nola baneatu edo nola compoundu iñori ecin eracusia; eta lurrac dembo-retzaz eta bere calidadeaz erara baneatu edo compoundu bear diran. Norbaittec oraiñ esango du, jaquiñ ezquero lur clase bat, zalla dala edo bestela samurra, eta lagore genero batec besteac baño obeto ematen dutela soro edo terreno batean. ¿Ez ote-diteque eracusi nola lana egin edo nola baneatu beardan? Ecin detzaque iñolaco moduz ere guizonaren jaquinduriaquin eracusi, cergatic eciñ asmatu dezaquean guizonac etorquizuna, au da cer dembora eguingo duan. Onegatic guertatzen da necazaria, oficio icasi duala uste arren ere, icasi gabe edo aprendiz, bada lur zalla sa-

murraren moduan baneatu edo componduta ere batzuetan asmatu eguiten da, lur samurra guchi urratu bear dana, zallaren moduan asco urratuta ere beste batzuetan berriz asmatzen da, lenago lagore clase batec edo bic bestec ematen etzuten terrenoa ere, beste batzuetan edoceñ generoc ongui ematen du; eta au gucia causatzen du demboreac, eta iñola ere guc ecin asmatu nolacoa eguingo duan. Baita ere esan degu neque andicoa dala necazaritza, eta urte asco icasten pasa arren eta beti aitu arren ere icasten ez dana, bada oraiñdaiñoco guciari ala guertatu zaye, eta guri ere ala guertatzen zaigu; baña alaz guciac ere sayatu eta aleguiña eguin bear degu lenengo oficio ta precisoen au aldan gucia aurreratu eta mejoratzeco.

Iruditzen zat medioric onena necazaritza aurreratzeco eracusi litequeana dala ganadu janariac ugaritzea, eta onen falta da gure euscalerrietaco necazarien artean billatzen dan faltaric edo zabartasunic andienatic bat. Necazarienzaco falta andia da bada ganadu janariac ugaritu gabe egoitea bere soro edo terrenoren conformida-

dean, cergatic necazariza obea eguiteco
 modua izango duan eta cergatic necazaria-
 ri artubideric andiena datorquion ganadu
 janariac ugaritzetic. Necazariac labore
 onac eguiteco, eta bere oficioco gayac au-
 mentatzeco, ez da erremedio obeagoric eta
 errezago artu dezaqueanic ganadu janariac
 ugarituta baño, bada ganadu janariac ne-
 cazarian altu ta bajuac erabiltzen duan
 maquinariic andien edo principalena da;
 eta beragatic diot euscal errietan comeni
 dala eta bear dirala ganadu janariac gue-
 yago ugaritu necazariza mejoratzeco. As-
 coc galdetuco dute ¿Cer ganadu jaten ote
 dira onac eta aumentatu edo ugaritu bear
 ditugunac? Badaquizute euscal errietaco
 ganadu janariric principalenac dirala dei-
 tzen zayenac Franci-belarra, Alfalfa, Itali-
 belarra, Ingles-belarra, erromolacha, arbia,
 pagocha, allorbea, eta charta. Genero oec-
 guciac ezagutzen ditu euscal errietaco ne-
 cazariac, eta nic icendatu ditut esateaga-
 tic, ceññ diran asco ereiteco onenac apar-
 tatzeagatic eta ceñec cembat ereitea co-
 meni dan obeto enteratzeagatic. Esan de-
 gu lenago berdura genero oetatic ugaritze-

co falta billatzen dala andiena; baña necazari guciari etzaide comeni igual ugaritzea, cergatic batzuari guchiago falta zaye bear aimbat ugaritzeco, eta eguin bear ditu necazariac bere terreno soro dabiltenaz conforme. Lenago dauden ganadu janariac ugaritzeco onenac dira alfalfa, Franci-belarra eta Itali-belarra deitzen diegunac, bada edoceñ necazariac ereiten ditu arbia, pagocha, allorbea eta charta, asco edo guchi aldan moduan; eta genero oec ugaritzeco dira aurretic esan ditugun iru genero oyec, ceñac gure demboran arguituac diran onuntza eta oraiñdic necazari guciatara irichi gabeac. Ez dira genero charrac Ingles-belarra ta erromalacha esaten diegun oyec ere; baña comprenditu eguin bear da norentzat eta nola. Ingles-belarra guciz janari ona da ganaduanzat; baña gauza ascorequin icusten deguna, guertatzen da onequin ere, guchi ematen du bada emengo terrenoetan. Erromalacha ere onada, eta comeni zayo berdura au terreno guchi daucan necazariari: icusten ditugu, bada, cale ondoetan baratza bat edo soro chiqui bat beste terrenoric gabe daudenac,

eta echean bey bat edo cherriac ascotan gobernatcen dituztela gueyenean lagore edo iriñarequin, eta onela gobernatuta dauden ganaduac izan oidute barren dic segura; onelaco necazariantzat gauza ona da ereitea erromolacha baratza edo soroaren trozo batean, udaran emateco ostoac legor garriquin nastuta eta neguan ondoac. Onelaco necazariantzaco ona da erromalacha; baña ez terreno andiac dabilzen necazariantzat, batetic gobiernu ona escatzen duan ongui emate ezqueroz, eta bestetic ganadu flaco edo argalantzat janaria frescoguia dan.

Ganadu janariac ugaritzeco esan degu comeni dala ereitea iru generoetatic principal eta soro edo ocunza dabilzen terrenoan conformidadean, bada necazari clase bati comenico zayo bere soro terrenoan seigarren edo zortzigarren parte bat ereitea, beste clase batecoari irugarren edo laugarren parte bat, eta beste batecoari soro edo ocunza dabilzen terrenoan erdiac ganadu janari ereitea. Onegatic necazariac cer clase edo modutan, entenditze-co moduan conveni zayon ereitea, eta ber-

durarie onenan aciatic cembat terrenotan
 cembat cantidade erein beardan, ganadu
 janari oyetaco bacoitzac cembat dembora-
 co bicia edo iraupena duan jarrico ditut
 gueroagoco advertenci batzuetan.

BIGARREN ADVERTENCIA: CEÑETAN ERACUSTEN
 DAN DILUVIO EDO UDALDE UNIVERSAL EDO MUN-
 DU GUZTICOA NOIZ IZANDU ZAN, ETA LURRAC
 NOLA ELCORTU CITUAN.

Orain dala lau milla urte ta gueyago
 izandu zan diluvio edo udalde universal
 edo mundu guzticoa, bada, berrogei egun
 ta gauean guelditu gabe eguin zuan euria
 eta mundu guztia ichasoa becela egondu
 zan. Diluvio edo udaldea eman zuan Jaun-
 goicoac bigarren castigutzat guizonari,
 dembora arretan gende gaiztoa cegolaco
 munduan, eta udaldeac asco elcortu edo
 gosetu cituan lurrac. Ona cer modutan
 guertatzen zaigun lurrac elcorturic, eta
 gu urrutian egon arren, guretzat ere neque
 bideac aumentatu edo ugarituric. Baña el-

cortasun orrequin conformaturic eta eza-
 guturic castigu ori, eguin bear degu ale-
 guña lurrac ongui gobernatzan, eta esan-
 go nuque lurrac izaten duan gaitzic aun-
 diena dala goseac elcortzea, eta pensatu
 dezaquegu alfer alferic dirala janic eman
 gabe lurrari aleguiñ eta empeño guciac,
 bada ez da engañatzen goseac dagoena ja-
 nic eman gabe. Ez det esan nai janic ema-
 ten ez diegun terrenoac ecer eman bear
 ez diguela; baicic esan nai det ez dala en-
 gañatzen lurra eta ez dala engañatuco ere
 cembait necazaric uste izaten duan becela,
 bada ascoc pensatzen dute aci asco sorroan
 bota ezquero, eta ganaduaquin edo besoaz
 aleguiña edo ongui baneatu ezquero, gau-
 za asco artu bear dutela; eta lurra ez, ba-
 ña orrelaco necazariac, engañatuac guer-
 tatuco dira.

Lurra ongui baneatzen seguitzea gauza
 ona da; baña lenagocoa da ongui jaten
 ematea. Gañera lurrac nai duan gauza da,
 lagore edo gauza genero bat egiten segui-
 tu gabe aldatzea edo mudatzea lagoreac,
 cergatic lurra ere necatzen dan beti ligo-
 re genero clase edo genero bat bacarric

eguiñarequin, beti zumo edo sustanci genero bat quentzen zayelaco. Beste gauza ascoc becela, lurrac ere nai du, guero berac guri ongui emateco, guc lenengo bera ongui gobernatzea. Gauza justua da izan ere, lenengo artu-bidea eguin bear degula, guero esca-bidea izate ezqueroz. Lurrac ere diferenteac dira, beste gauza asco becela, baña zor pagatzalle seguroagoric ez det observatu, nola dan lurra, beraren leguetan seguitu ezquero. Lurrari, comenida ongui bere gobiernu eta baneatzen seguitzea; baña necazari ascoc eguiten duana da, gauza guchi consideratzen dutelaco, lur asco soro edo ocunza erabilli, naiz jaten guchi eman, eta modu onetan ideatu ezquero, beti izango da lurrarequin ecin asmatua.

Esan degu lenago ta gucioc daquigu lurrac escatzen dituala; lenengo ongui gobernatzea edo jaten ematea, eta bigarrena ongui baneatzea. Oec biac dira lurrac escatzen digun gauzaric principal edo andienac; eta gauza oeri biari cumplimentu emateco, atera bear ditu contuac necazariac: lenengo, cembat soro edo ocuntza

ibiltzeco terrenoantzat ongui emateco dau-
can jatena; bigarrena, cer modutan segui-
tzeco modua dagoan baneatzen; au da la-
goreac eguiteco demboraco lanetan, lagore
jorretan da gañeraco seguimentuetan, eta
irugarrena, lenago lurrari jaten ongui ema-
teco moduric ez badago, cer modutan
ideatuaz ugaritu ditezquean janariac.

Necazariac lenengo neurri bear duan
gauza da cembat terreno ongui gobernatu
eta gañeraco lanetan ongui seguitu deyo-
quean, eta sobratzen zayon terrenoan erein
ganaduac ongui gobernatzeco modua, au
da ganadu janariac ugaritzecoa. Bat edo
batec acaso onegatic, galde letzaque ¿le-
nago urteaco aimbat edo guchiago lagore
eguiten degu, eta soro terrenoac guchitu-
ta, cer eguin bear degu edo nola manten-
duco guera? Modu edo clase onetaco neca-
zariac ere lagore lurrac piscabat guchitu
eguin bear ditu eta ganadu janac piscabat
ugaritu, eta onela izango du piscabat obe-
to lurrac gobernatzeco modua, ta lurrac
obeto gobernatu ezquero, terreno guchia-
goan len aimbat edo gueyago lagore. Icus-
ten dira necazari batzuac, beti lagore cha-

rrac eguiten dituenac; batzuac soro terreno andiac erabilli eta ayen conformidadean hiñaurquin guchi daucatelaco, eta beste batzuac hiñaurquiña edo simaur gaya abundanciaz eduqui arren ganadu janari guchi daucatelaco; eta onelacoacgaitic, dudarie gabe esango da, necazaritza ongui ideatzen ez daquitela. Comparacio bat eguin deyequet orrelaco necazariari, lenagoco cocinero bati pasa citzayónarequin, pensaturic igual guertatzen zayela necazari ori ere. Cocinero bat bere artean cerbait icasi zualaco ustean, juan zan servitzera fonda batera, eta ifiñi zuan otordu bat, cuadrilla edo sall jaquiñ batentzat, gauza ascotic abundanciaz; baña janariac jarri cituan especi edo gozagarri guchirequin, eta dudarie gabe gusto guchicoac. Eta nagusiac icusi zuanean gendea discontentu cocineroaren faltaz, bereala despachatu zuan ehetic campora. Juan zan cocinero ori bigarren lecura, eta consideraturic lenengo lecuan eguin zuan falta, pensatu zuan ifiñi bear zuala gauza guchi izango bazan ere ongui compoundua bere especi ta gozagarriaquin, eta nagusiac esan ciolarie cem-

bat gende izango zan guchi gora bera, jarri zuan gauza guchiagui, bere ongui eguiteco cuidaduaquin; eta motivo onengatic despachatu zuan nagusiac biar lecutic ere. Gure cocinero ori juan zan irugarren lecura, eta ezaguturic, nola lenengo lecuan eguin zuan falta ala bigarren lecucoa, eta gendea etzala engañatzen gauza edo janari charraquin asco izan arren, ta ez da guchirequin ere ona izanagatic, seguitu zuan creditu edo fama onarequin.

Au bera guertatzen da necazari ascorequin; baña ezagutu eta consideratu bear degu cocineroac ezagutu eta consideratu zuan becela, lurrac ezagutzen duala gauza edo janari asco eman arren, charra ematen bazayo; eta gauza ona eman arren ere terreno edo campo ascori, engañatzen ez dala guchirequin, bada lurrac pagatzen du berari ematen zayonaz conforme.

Gucioc icusten degu dijoatzela asco edo ari dirala soroac añaditzen eta basoac guchitcen, ta idea onetan seguitzen bada etorrico da dembora, iñola ere lurrac eciñ ongui gobernatu ditezqueana. Lenago ez dan lecuan soro berria eguitea, lenagoco

soro terrenoac añaditzeco, ongui eguiten du lenagocoac eta berriac ongui gobernatzeco moduac, au da, gayac dauzcanac; baña ez du ongui eguiten, gayaquin gobernatzeco contatzen ez duanac, eta clase onetacoac gueyago dira, aurreco clasecoac baño. Beste ascoc basoac guchituten dituzte muiteguiac, eta sagastiac jartzeco eta ganadu janariac ugaritzeco; eta idea oec guciac onac dira; baña ez gucirentzat. Ez dira, bada, onac, lenagoco terrenoac ecin gobernaturic ari dan necazariantzat, cergatic, esan dezaquegu lenago daucan carga ecin eraman duala, ta berriz gueyago añaditzen ari bada azcarrago erorico dala.

Oraindañoco arrazoy guztiac eracusten digute, lurrari jaten guchi ematen bazayo, guri asco ez digula emango lurrac; eta ez dagoala beste erremedioric ongui gobernatzea eta aleguiña laguntzea lurrari, berac ematea naibadegu. Necazarien batec, arrazoy oecgatic esango du onenean: Beste jarrico baligu medio edo gayac lurra ongui gobernatzeco, necazari onac asco izango guindaque! Bacoitzac berac artu

bear ditu medioac, berac disponitzen duan gayaquin aldan onguiena meioratzeco necazariza; badaquigu, bada, gucioc ez dauz-caguna medio ignalac.

Lurra meioratu eta gozatzeco, badira beste erremedio asco ere; bada edocẽñ so-rotaco lurra, eramango balitzaque esquiña batecoa beste esquinara, ta emengoa bes-te artara, asco meioratuco litzaque, cer-gatic erabilliaz usteldu ta gozaten dan asco lurra; baña au beciñ edo gueyagoco premia duten lanac izaten ditu gueyenean necazariac.

Edocẽñ lur clasetaraco gauza ona da carea, eta onequin guertatzen zaigu bat-zueri ongui gueren terrenoac gozatzea castu andiric gabe, eta beste bat zueri be-rriz, gozatzeco terrenoac asi ta mejora ba-ña calte gueyago dala guelditu contuac ongui atera ta alde gucietara ongui begui-ratu ezquero; bada batzuac, carea eguite-co arria daucate eroso, egurra edo errequi-ña arria erretzeco ere echean edo eroso; onela dauzcan necazariac bere nequeaquin costu aundiric gabe, boticatu edo gozatu ditzaque ederqui careaquin bere terrenoac,

ta provechu onac ateraco ditu: beste ascoc dauzca berriz carea eguiteco arria urrutian, egurra edo errequina erosi bearra, ta pagatuaren acaso urrutian: onelacoari guertatzen zayo, dirutan piscacho bat gastatu, ganaduac necaturic asco galdutzea, eta urtearen lautatic bat carea eguiteco lanetan pasatzea, eheco gañeraco gobiernuac utziric ta lan gucian atzeraturic, eta azquenean ongui erretzen bada gaitz erdi dira neque ta gastu guciac. Ala guciac ere, esan deyoquegu onela carea eguiten seguitzen duanari, provechua quentzen dion baño castu andiangoac eguiten dituala eta ohea izango litzaqueala beste modu batera ideatzea, bada cillarra ere ona izan arren, berac pisatzen duan aibat urrea costatzen bada, mejora ez baña perjuicioa izango da. Necazari ascoren nequeac eta castuac icusita carea eguiten egon izandu naiz iruditzen zatadala iru irabazteco edo mejortzeco bost edo sei castatzen dituela; ez det guciacgatic esaten, baicic esango nuque lecu batzuetaraco erremedio gabea becela dala eta onelaco parajetan, naiz asco gastatu eguin bearda. Eta gañera guerta

liteque terrenoen batzuetan gaitzen bat eguitea eta seguitzea lagore generoen bati, ta erremediotzat gaitzaren contra careatu bearra campoac. Lecu batzuetan eguiten zayo arbiari gaitza edo arquitzen zayo ondoan coscorrac, ta terreno onetan gaitza quentzeco bear da eguin alfalfa eta au ecin baditeque, carea gogotic eman.

Iru operacio eguiten ditu careac lurrean: lenengoa, lenago zalla dagoana samurtzea; bigarrena, samurra zalltzea; ta irugarrena, calidadea mudatzea. Operacio oec berac eguiten dituzte alfalfa, Franci-belarra eta Itali-belarrac. Emendic contua atera diteque, cer diferencia dagoan, carea eguin ta lurrari emateatic; eta aci genero oyec eguiteatic. Bada aci genero oec eguinda dator, ganaduac ongui gobernatzeco modua berari cerbait, quenduaz; lurrarentzaco gozagarriac ugaritzecoa, ta lurrari calidadeac mudatzecoa. Esango dit norbaitec, betigastu edo costu chiquia autu edo esleitzen deala. Eta eguia esangodu, cer gatic obra chiqui au necazari pobreari esqueintzen diean, eta ez dauquenari costu aundia aplicatzea, alperricaco lana da; eta

aberatsac ez dute izan oi pobreac aimbat necesidade.

Euscal errietan badaude necazariac ongui ideatzen dituztenac beren terreno antzat dauzquen gayac; eta beste asco gaizqui ideatzen diranac, eta oec bere iritzian uste dute lur ascorequin necatu ezquero, necazariza ona eguingo dutela, edo necazari onac diela. Nic esango det clase onetaco necazariac oso engañatuac daudela, ta onela ideatzen danaren izaera icusten degu nola izaten dan: lagoreac erein arren beren demboran edo besteac ereiten dituzten demboran, guertatzen zaye, beren idea charra dala medio, neguan ganaduantzat arbi guchi, artoac eguiteco dembora etortzen dan demboran, lurrari emateco simaur edo gozagaroi guchi, gaitz batec, bada, bestea ascotan ecarri oidu, ta arto onac eguiteco edo izateco ere, aurrecoari beguiratuta motivo guchi, baicic charra izatecoa, ta onela ascotan arto-lastoac lurra ecin estaliric soroan. Batzuetan egoquitzen bazayo, ereiteco demboran ongui asmatu duelaco, edo demborac ongui lagundu dualaco, arto-lasto andiac eguitea,

gueyenean orituco dira edo galduco dira buruac emateco demboran, lurrac indarric eduqui gabeco faltaz. Gariaquin ere oro bat guertatzen da, ta guero urteoro izaten da cerbaiten aitzaquia, ta gucia da lurrac indar guchi eduquitzea. Beste gauza bat guertatzen da indar guchi daucan lurrarequin, eta da lagoreac erein ta lagore landarac baña indar andiagoa artutcen dute belar gaiztoac.

Necazari escaz edo char juzgatzen degun onec esau do, aurreco urtean lagore charrac izan cituala ereiteco demboran ongui asmatu etzualaco, aurten charrac dituala demboréac lagundu ez diolaco, eta urrengo ta urrenagoco urtean ere izango da cerbaiten aitzaquia, eta onela seguitzen du bere idean, ta beti guero onac eguiteco edo onac izateco esperanzan, beñ ere onac eguiten ecin asmatua eduquiarren. Ecin asmatu onen lantic iru parte datoz, batere dudarric gabe lurrari jaten guchi ematetic; eta onelaco necazariari esango nioque terreno asco soro badabiltza, ta iñaurquin lecu guchi badauca, soro dabiltzan terrenoaren erdi partean erein detzala ota zu-

ria, baldin ganadu-jatetenac erein da ez badauca necazariza arreglatzeco moduric. Ota zuria erein bear da erdiric escase-nean, ta onec ematen dion gozagarri gaya-requin, ta lenago cituanaquin, izango luque modua soro dabiltzan terrenoac ongui emanaz gobernatzeco, ta lenago gucian baño lagore gueyago eguingo luque ta gañera obeagoac, bada onguijandacolurrean cantidadeigualean ere frutu ohea izaten da. Onegatic esango du bat edo batec, cembat nagusic icusico balu soroan otea eguiten bere maiztarra, cer esango ote luque? Batare ecer comprenditzen badu, nagusiac ecin esan letzaque ecer, cergatic obeagoa dan soro terreno andiac ecin baneaturic edo compounduric, beti nequean azpian aditzea baño, jaten edo gozagarri ematen zayela; lenago esan degun moduan ideatzea, bada clase orretaco necazarien izaera da izan alditequean oficioric pobre, arlote edo miserableena.

Gauza ascoren cembat guizon, aimbeste aldetara pensatu edo beren iritziac ematen dituzte, ta idea oneagatic ere, iruditzen zat esango dutela batzuac: lenago

nagusiantzat aibat gari eguiten degu, ta terrenoac guchituta nola eguingo degu? Beste batzuac berriz esango dute: familia andia degu, Jaungoicuac emanic, ez degu eguiten soro terreno gucietan ere gueyegui, ta oec guchitu ezquero nola eguingo degu? Ez icaratu, ez icaratu necazariac medio ori artutzeco, bada lurrac berac eracusten digu, edo esaten digu claro asco certatic etortzen zayon gaitzie andienac, ceñac lenago esanac eduqui bear ditut; bañe esango ditut berriz ere, eta dira: lenengoa, jan guchi ematen zayolaco etortzen zayona; eta bigarrena, beti lagore genero bat eguitetic, edo aldatu edo mudatu gabez lagoreac eguiten zayona. Lenengo gaitza daucan terrenoari edo soro lurrari ta au da gaitzie andiena ta gaiztoena, euriac azcar eguiten dio tela edo azal andia, ta onec lurra trincotu ta elcortutzen du, eguiten diola lagoreari perjuicio edo calte andia eguiten diola; euzqui claroac seguitzen badu ere modu berean legortu ta argaldutzen da terreno gosea, naiz dala bada euri-jasa andi bat, ta naiz dala eguzqui fuertea, biac lur jan gabeantzat dirade cal-

tecoac edo perjuiciocoac, cergatic indar guchi daucan terrenoac aguantatzeco nola bati ala besteari. Eta ladaquigu urte guchitan izaten dirala edo seguitzen dutela piscabanan, baña necazaria desengañatu lur ascojan guchiaquin ibiltzeaz. Bigarren esan degu dala, lagoreac ez aldatu edo mudatzetic datorrena; bada lurra ere beti lagore genero batequin necatu eguiten da, cergatic zumo edo sustanci genero bat beti quentzen zayon, lagore genero batequin seguitu ezquero.

Esan ditugun arrazoy guztiari beguituta, esango degu berriz ere ez icaratzeco batere soro terrenoc guchitzeac, naiz esan degun modubatera naiz bestera, icusirie ceñ comeni zayon. Soro lurrac piscabat guchituagatic, eguingo du bada len aimbat edo acaso gueyago lagore terreno guchiagoan, ongui gobernatzeco modua obeto izango duta, eta ongui gobernatu ere eguin ditzaque, lenago esanic daucagun moduan; eta onela ongui gobernatacoac ascoz ere gueyago aguantatuco dio naiz euriari, naiz eguzquiari, ta gañera lanac errazago eguin ditzaque, belar-gaiz-

toac galduco dira, ta necazariac berac ere, icusirie mejoratzen edo aurreratzen ari dala, indar edo gogo gueyago izango du bere oficio-raco. Estadu onetan, au da, lur-rac ongui indar artutacoan, ideatzen badu lur piscabat gueyago ere ongui gobernatu-co duala, añaditu detzaque piscabat.

IRUGARREN ADVERTENCIA: CEÑETAN ERACUSTEN DAN; EUSCAL ERRIETACO NECAZARIEN ARTU-BIDERIC ANDIENA CERTATIC DATORREN.

Euscal errietaco necazarien artu-bideric andiena izaten da ganaduetatic.

Galdea. Cergatic eracusi da, badá, lenago lagore onac eguiteco modua ta beste gauza ayec?

Eranzuera. Cergatic lagore onac eguiteco eracusten diran medioetan, ta ganaduac ongui gobernatzeco eracusico dietzetan seguituaz, mejoratu ta aurreratzen diran dembora berean biac.

G. Cer ganadu dira artu-bideric andiena ecartzen diguenac?

E. Chalac, beyac, iriac eta cherriac.

G. Ez ote da artu-bideric izaten lagore ta beste gauzaquin?

E. Ez, garia, ta artoa urte gucietan falta izaten ditugu, baita erariac ere.

G. Beraz aleguinic gueyena eguin bear degu artu-bidea izate ezqueroz, esan diran ganadu clase oyeri atenditzean ongui, edo oyec ongui gobernatzean?

E. Bai, ganadu clase oyeri beguiratu bear diegu, baita gobernatu ere atencio edo arreta andiarequin, eta esanic daucagun becela, ganaduac ongui gobernatzendator artu-bideaz gañera, lagore onac eguitea ere edo necazariza mejoratzea. Edoceñec ezagutu detzaque cer ideatan edo cer modutan necazariac eguin bear duan aleguina edo nola sayatu bear duan añaditzeco ganadu clase oyetatic datorren artu-bide ori; bada ganadu-janariac ugarituta dator ganadu gueyago eta obeac izatea ta ganaduac ongui gobernatzetic lagore obeac eguitea, ta necazariza gucia aurreratu edo mejoratzea.

G. Necazariza mejoratuta, izango ote luque necazariac bestec mesede edo ventajatic?

E. Eciñ apartatu liteque iñor ere necazariza aurreratuta ventaja ez duanic, cergatic dan munduan lenengo officioa ta azqueneraño eciñ utzi edo abandonatu ditequeana, cergatic gucioc sostendu edo mantendu bear gaituan necazaritzac; bada guizonic jaquintzuenac ta habilidaderic andienecoac ere; ecin vici ditezque, edo ez liraque vicico necazaritzaric ez balu iñor eguingo, hitz batean esateco lurraren gañean gauden gucioc, lurraren emanarequin vici bear degu.

G. Contu orretan ascorengana irichico da necazarizaren altu-bajua?

E. Bai chit ascorengana edo gucieta-
ra. Comparatu dezaquegu necazariza fabrica batequin. Erri batean arkitzen da fabrica bat, ceñac mantentzen duan erricogende gucia, berac ematen duen empleo ó lanarequin; eta fabrica onec izaten badu desgracien bat trastornatzeco, edo udaren faltaz, edo gueyeguiaz, edo beste motivo-
ren batez, erri orretaco gende guciac izango du caltea. Beste aldera berriz, fabrica orrec mejoratzen badu, errico gende guciac izango du ventaja. Eta izanic edo

consideraturic mundu au gucia fabrica bat becela, eta fabrica au erabiltzen duan ibaya, necazariza; ibai onec trastornubat izaten badu udac aditu ta edo beste motivo-
ren batez, iristen da trastornu au fabrica-
ra, au da mundua, eta emendic erriari, au da, munduco gende guciari. Eta emendic contua atera, ta consideratu diteque, ceñ bearra, ceñen importanci andicoa dan necazariza.

G. Cembat clasetaco oficialeac gaude importanci andico oficio edo necazariza onetan?

E. Lau clasetaco necazariac daudela esango det, lendabico, bigarren, irugarren ta laugarren clasecoac. Lau clase oetatic, iru azquenecorentzat esango ditut medioac bere oficioan aurreratu ta mejortzeco, bada lenengo clasecoac ongui ideatzen ditu bere oficioaco gayac, aurrecoac utzita medioac egoquiago dituelaco, edo berac medioac artu ta ongui ideatzen daquelaco, edo beste motivo edo suerteren batez.

G. Ascoc.eguingo guenduque necazaritza ona gueren oficioaco gayac ongui

edo completo baldin baguenduzque eta
 ¿cergatic beardute orrelacoac lenengo cla-
 seco necazarien icena, ez izanic acaso
 beneric baño gueyago zayatzen diranac,
 ta guizon habilidade andicoac?

E. Icen ori ematen zaye necazariza
 ona eguiten duelaco, bada ez acaso berac
 beneric baño habilidade andigocoac diela-
 co; baicic Jaungoicoac guciontzat mundua
 igual eguin arren, lecu edo terreno obean
 egoquitu dielaco, medio edo gayac beren
 aurrecoac obeto utzi dielaco, edo berac
 arguiagoac izanic, medioac obetoago ar-
 tzen dituztelaco; hitz batean dala motivo
 bat edo dala bestea necazaritzaco gayac
 ongui ideatzen edo necazariza ona eguiten
 duelaco.

Motivo oecgatic ez zaigu iruditzen guc
 ecertan eracusi premiric dauquenic lene-
 nengo clase onec, edo obequi guc ecer
 eracusi deyoquegunic, cergatic esanic dau-
 cagun becela, necazaritzaco experienci pis-
 ca bat beneric ez degun, eta oyeri eracus-
 teco bear dute maisu barticularragoac, be-
 ra gatic pasaco guera beste iru clasean ga-
 ñean cerbait eracustea.

BIGARREN PARTEA

LAUGARREN ADVERTENCIA. CEÑETAN ERACUSTEN
DAN: BIGARREN CLASECO NECAZARIARENGAÑEAN.

Bigarren claseco necazaritzat juzgatzen bazauzte, malla bat bacarra falta zatzu lenengo clasecora igotzeco, ta atera ditza-gun contuac malla ori nola igo ditequean

G. Nic ez det beñere iñor observatu nere necazaritzaren gañean juzguric eguiten, esan nai det, edo lenengo, bigarren, irugarren edo laugarren claseco necazaria naicela esaten, eta nola entenditu bear det ceñ clasetacoa naicen?

E. Besteric juzgatzen ascotan erreza-go izaten da, bere lanac ongui eguiten baña; eta ascoc ta ascotan juzgatu cinduen zu ere, zuc ez observatu arren. Baña contu oec utziric goacen, nola edo cer modu-

tacoa daucagun bigarren claseco necazaritzat icustea. Bigarren clase onetaco necazaria baldin bacera, eguiten dituzu lagore onac, beti onenaren moducoac ez bada ere, cergatic lagoreac eguiten falta zatzun guchiena lendabico clasera igotzeco. Lagore onac eguiten dituzu, terreno obeac beste ascoc baño dituzulaco, edo beste atzeragoco claseco ayec baño medio ta gayac obeto dituzulaco, edo ta bestela gayac besteac baño piscabac obequiago ideatzen daquizulaco.

G. Cergatic orrembeste aldetara beguiratu bearra dago nere necazaritzaren clase edo estadua ezagutzeco?

E. Cergatic ascotan izaten dan gaitz andi bat ezagutzen errazago, chiqui edo ezcutuan dagoan bat baña, eta clase onetacoa necazaria izanic faltarie edo gaitzie chiquiena daucana, oraindic obeto ere erregistratu bearda, falta chiqui ori erremediatric lenengo mallara igo dedin. Icusi dezagun orain ganadu janariae cer modutan izaten dituzun. Esango nuque, bigarren clasecloa ceala contu egainic, guchi gorabera izaten dituzula modu onetan: negu-

raco eguingo dituzu, arbi onac dauzcazula necazari regular batec esateco moducoac; uda berriaco pagoch, allhorbe, charta ta beste modu onetacoren bat, eta udaraco izango dituzu belarra, ta ostoa abundanciaz. Pensatuta esan ere eguingo cenduan, edo aditu beñ edo beñ necazarien bati; eguiten degu neguraco arbia cerbait abundanciaz ibiltzeco moduan, uda berriraco ere izaten degu berdura ganaduac cerbait cumplitzeco moduan, eta udaran cembat ecarri aimbat esateco moduan belarra ta ostoa; baña ala guciaz ere, negu azquenean ta uda berrian becela ez du irabazten ganaduac udaran, bada udaran udaberrian becela iraba cico balue, ascoz gueyayo mejoratuco guenduque, bada duda gabe ere belarra ta ostoa aulac edo indar guchico janariac izango dira. Motivo onegatic comparatu ditezque belar ta osto utsa ganaduantzat, arto edo ogui utsa becela guizonarentzat.

G. Cer erremedio daude bada orain-falta edo gaitz ori sendatzeco?

E. Eguinic contuzure gaitza esan degun becela dala, au da, Mayatzetic uda az-

quenera bitarteco ganadu janari aulac edo indar guchicoac eduquitzea, erremedioa aplicatuco degu. Soro terreno dabiltzezun seigarren edo zortzigarren parte bat ganadu-janari ereitea comeni zatzu, lenago esanic^d dauden aci edo berdura genero on aye-tatic, ceorrec egoquiena deizquiotzun esquina edo parajea.

G. Modu onetan mejoratu detzaquet ganaduacquin uda gucian, lenago uda berrian mejoratzen dedan eran?

E. Bai batere dudarie gabe, etorricozatzu, bada, ganadu janariac abundanciaz uda gucian, ceñec guchi esan nai ez duan neguraco izateco ere; eta emendic dator lagorea ere len baño gueyago ta obeac eguitea, cergatic lurrari emateco simaur edo gozagarria ere eguingo dezun len baño gueyago, ta indar edo sustanci gueyagocoa.

Ona, bada, emen erremedioa, zure falta edo gaitz chiqui ori sendatzeco; eta seguituaz modu edo era onetara, irichi zaitezque, eta len baño neque guchiago izaten dezula, lenengo claseco necazariaren mallara.

BOSTGARREN ADVERTENCIA. CEÑETAN ERACUS-
TEN DAN: IRUGARREN CLASECO NECAZA-
RIAREN GAÑEAN.

Irugarren claseco necazaritzat baldin bazauzcate, edo cegorrec baldin badaucazu cere burua, esango dute edo zuc ceorrec pensatuco dezu necazaritza regularra edo acaso ona eguiten dezula, ta ona eguiten dezula esan ere baliteque, bada, laugarren clasecoari bacarric beguiratu ezquero, baña bigarren ta lenengo claseari beguiratutacoan esan liteque, ta zuri ceorri ere ala irudituco zatzu, clase regular edo irugarrengo ori bajua dala. Clase obeagora edo aurreragoco oyetara igota; au da, necazaritza obeagoa eguinda, inõorentzat calteric ez dagoan ezqueroz baicic ventaja edo mesedea guztiontzat aleguina eguin bear dezu malla altuago oyetara igotzea, artutzen dituzula aldan medioric egoquienac.

G. Necazari guztioe clase edo malla

igualean, bicitu bear aldegu, bada, clase aundien orretara igoric?

E. Ez, iñola ere ecin diteque, danoc clase batean edo igualean bici izatea; baña, lenago esan degun becela, nola ez dagoen calteric etorri beldurric necazaritza aurreratu edo mejoratzeaquin, baicic cembat ta gueyago aurreratu ta mejoratu, orduan ventaja aundiagoac, ta nola guizonic gueyenac izaten duan aurreratu ta mejoratzeco deseoa, arguituco dizut medio batznac, igotzeco piscabat gueyago, asco ecin bada ere.

G. Nere oficioan aurreratu edo mejoratzeco deseo badet nic ere, eta onetara-co ¿Cer erremedio aplicatzen dizquidatzu?

E. Gaitza aurreratua daucazularic, beguira dezagun aurrena, nundic datorren, eta ezaguturic, aplicatuco ditugu sendatzeco aldegun erremedioric egoquienac.

Necazari clase onetacoa bacera, lago-reac eguiten dituzu regularrac icendatzeco moducoac, hiñaurquin, edo simaur edo gozagarri gayac ugari edo abundanciaz dituzulaco, laneraco echean indarra gogotic edo asco zaudelaco; edo bestela lur edo pa-

raje onac dituzulaco, edo lagoreac ereiteco demboretan ongui asmatzeco suertea dezulaco.

G. Ventaja oyetacoric ez izan arren, ez aldezaquet nic eguin necazaritza regular bat?

E. Ez det esan, eta ez det esan nai tontoa edo alferra ceranic; baña azcarrena ta habillena bacera ere, necaritza regular edo clase orrelacoa eguiteco bear dezu ventaja oyetaco bat. Au utziric goacen aurrera ta billa detzagun nundic datorren gaitza.

Arbiac ere regularrac dirala esateco moducoac izaten dituzu ganaduantzat negu parteraco; eta pagoch, allorbe eta charta edo onelaco generoen bat uda-berriraco, eta oecquin gueyena mejoratzen dezu idiac edo beyac guicenduaz ta chal bat edo bi onac atereaz; eta udaran guertatzen zatzu ecin ecer mejoratua ganaduaquin belarra ta ostoa regular dituzularic. Emendic pensatu dezaquezu, ostoa ta belar utzac ez dutela indarric, uda-berrico berdura ayec becela ganaduac mejoratzeco.

Icusiric zure necazaritza, esango dizut eguin bear dezula udaraco dauzczazun be-

lar ta osto oyec nastutzeco belar-aci genero on batzuetatic trozo onac lenago soro terreno dabilitzezunen irugarren edo laugarren parte bat; eta onela lenago udaberrian mejoratzen dezula becela ganaduacquin, uda gucian mejoratuco dezu.

G. Anciña asi nitzan ganadu-jaten oyec eguiten soro-goien, esquina ta onelaco bazter batzuetan; baña gure echeanchal bi gaztechoc bacarric jaten dituzte izaten diran belar on guciac, ta gueyago eguingo banuque ere, gure emacumeac bei-esnedunari jan eratzico lioquea, berac esnea saldutzeagatic: zuc eracusten dezun modu orretan soro-lurrac guchituta, lenago guciari simaur edo gozagarría onguisamar eman arren, lagore regularraquin guelditzen banaiz ¿esne diruaquin edo nola bici biar det guero?

E. Zure falta gueyago billatzen det nic zure echean emacumearena baño, cergatic eguiten dezun ganaduanzat janari on guchi, eta eguiten dezuna ere, beste gauzaric eguiten ez dan lecuan. Eguiten badituzu, bada, soro terreno dabilitzezun gucian irugarren edo laugarren parte be-

lar onetatic; au da alfalfa, Franci-belarra, edo Itali-belarra, oraiñdaño chalach jan izan baditu ere zure janari on guciac, izango dezu iriari, beyari, chalari ta che-rriari, guciari ongui emateco moduan; eta eracusi emacumeari ganadu guciari arretaz beguiratzen. Soro edo terreno guciari si-maur edo gozagarria ondo ematen diezula badeizquiotzu, ta lagore regularrac beste-ric ecin eguin dezula; onegatic ere acaso ceorrec izango dituzu faltac, cergatic one-nean eduquico dituzun hiñaurquin edo gozagarri gayac campoan bustitzeco mo-duan, bada onelacoac ez du izaten, lego-rrean ongui conservatu ta guero ongui eguindacoac aibat indar, cergatic quen-dutzen dioen indar edo sustancia euriac ta eguzquiac.

Bada zuretzat erremedioric egoquieena da, lenago esan degun moduan ereitea, len esan becela ganadu-janari guchi badauca-zu, alfalfa, franci-belarra ta itali-belarra lagorea ereiten dezun terrenoetatic iruga-rren edo laugarren parte bat; eta hiñaur-quin edo gozagarri gayac bustitzen ba-zaizquizu campoan euriaquin, legorrean

conservatzeco ta guero uculluan ongui eguiteco edo gozatzeco modua, bada comparatu diteque campoan euritan egondaco hiñaurquinaquin eguindaco simaur edo lurrarentzaco gozagarria, coiperic gabe edo guchirequin porru saldearequin eguindaco zoparequin, ta ongui legorrean conservatuaquin eguina, ollo onaren saldearequin eguindacoa becela.

Idea onequin seguitzea eguiten badezu aleguina, ganaduac ongui gobernatzeco janariac izango dituzu uda gucian, ganaduactatic obetogo valiatico cera, lurrarentzaco eguingo dituzu gozagarri ugariago ta obeac, eta lagorea ere eguingo dezu gueyago eta obea ascotan, len irugarren edo laugarren parte bat gueyagoan baña, cergatic aci generoac mudatu edo aldatuaz lurrac garbitu ta samurtcen diran, eta azquenic lanac mendeagoan edo guchiago izango dituzun, eta era onetan seguituaz laster igoco cera beste clase edo malla aundiagoco oyetara.

SEIGARREN ADVERTENCIA. CEÑETAN ERACUSTEN
 DAN: LAUGARREN CLASECO NECAZARIAREN
 GAÑEAN.

Laugarren claseco necazaria cerala juz-
 gatzan badute, claseric bajueneco necaza-
 ritza eguiten dezu; eta ez bacarric esango
 nuque necazarien artean cerala bajuanan
 clasecoa, baicic oficio bajuagoric ecin asco
 izan ditequen moducoa dala zu arquitzen
 ceran necazari clase ori.

G. Necazaritza honra aundico oficioa
 dala eta nic cergatic mereci det oficio gu-
 cietan bajuenecoaren icena?

E. Laugarren clasean daude batzuac
 alferrac edo lana eguiteco gogoric ez dute-
 laco ta zabarqueriaz alferric galdutzen di-
 tuztelaco necazaritzaco dauzcaten gayac;
 beste batzuac lanac eguiteco familian in-
 dar chiquia daudelaco; eta beste batzuae
 necazaritzaco dauzcaten gayac ongui idea-
 tzen ez dituztelaco.

G. Alferra naicenic ez det uste, ez eta
 onelacoen famaric dauqueanic, zabarque-

riz ez det gauzaric galdutzen, laneraco indar chiquia ascotan izaten guera; baña ala ere aleguina gucia sayaturic, iruditzen zat lurrac regular-samar baneatu eta jaten eman edo gobernatu eguiten dituala, eta esango nuque gure lurrac elcorrac, legorrac eta ciquincorrac dirala, hitz batean charrac dirala; bestela ¿cergatic lagore obeac ez dituzte ematen?

E. Erremedioa aplicatzeco billa detzagun gaitza. Conformaturic eta sinisturic eguiten dola laugarren claseco necazariac aleguina lurrac baneatzen eta gobernatzen, ta ascotan acaso lenengo clasecoa baña gueyago necatu ta sayatuco zala, alferric guertatu bazayo ere. Nic onelacoari galdetuco nioque, ¿pruebaric eguin dezu beñ ere, lurra comeni zayon moduan ongui gobernatuta cembat emango luquean? Ez det uste orrelaco pruebaric eguin dezula, cergatic zuc, eta beste ascoc ere bai, uste izaten dezun beti, lur ascotan eguin ezquero lan asco, lurrac asco eman bear duala; ta au izango litzaque lurra engañatzea eta lurra ez da engañatzen, baicic zu eta zuc becela pensatzen dutenac.

Egingo det comparacio bat obeto gauza au entenditu dedin. Ipintzen badira bada, esne-bey asco berenez onac diranac izan arren, jaten guchi ematen bazate, edo gaizqui gobernatzan badira, ez dute emango esne asco; eta berenez charrac badira guchiago: eta ipintzen badira guchiago edo lenagocoren erdiac, eta oec ongui gobernatu, (bada bi baño bat errezago diteque ondo gobernatu,) emango dute lenagoco guciac baño esne gueyago eta neque guchiagorequin.

Modu berean zure lanac, esango nuque ascotan guertatu izandu dirala, edo zure lanari pasatzen zayela, egur busti edo eceari sua eguitean pasatzen zayona: egur ecequin bacarric sua eguiten asitzen danari, ascotan guertatzen zayo, beti ez bada ere, egurrac urtu edo gastatzea su onic eguin gabe, quea bacarric emanaz, igargarri edo piztugarri onaquin su ona egingo luquean bitartean.

Oen gucien vistan, esango nuque zure eta laugarren claseco necazariaren gaitzic aundiena dala necazaritzaco dituzten gayac ideatzen ez ongui jaquitea.

G. Necazari bajua edo claseric esca-senecoa ni izatea, ez da izango nic idea-tzen ez jaquitearen falta bacarric, bada necazariari comeni zayon gauza edo me-dioetatic guchi badauzcat, nere aurrecoac pobreac izanic, utzi ez ciradelaco, eta ni negoni necazari berria oraindic izanic, no-la artuco ditut aurreratzeco medioac? ba-da, ez det icusi material edo gairic gabe, edo guchirequin tela asco eguiten duan Fabricaric.

E. Ongui esana, ta ongui fundatuta aldean dago arrazoy ori; baña nic esango dizut: Fabrica eguitean material edo ga-yac generoa eguiteco aurrena billatu oi di-rela, ta dudaric gabe gayaric gabe ez dua-la eguingo Fabricac generoric. Necazari-tzaraco guchi edo asco gay izango dezu, necazaritza eguiten dezun ezquero, cergatic Fabricac ez du eguiten material edo gairic gabe generoric batere. Dituzu gay edo ma-terialac ongui ideatzen icasten badezu, gueroago ta errezago artuco dituzu me-dioac necazaritza eguiteco. Conveni zatzu ereitea lenengotic soro terreno da-billquizun guciaren erdiac ganadu jaten,

edo acaso berriz convenico zatzu beste moduen bat; au da, lenago esan dan becela necazaritza eguiteco gozagarri edo hiñaurquin guchi badaucazu, erein bear dezu soro terrenoaren laugarren parte batean ota zuria, ta beste laugarren partean belar aci genero onac; eta onela ugarituco dituzu ganadu-janari ta hiñaurquina, eta necazaritzaaco material edo gayac.

G. Gaitz aundia daucadala esan diazu lenago, ta azcar ta ongui sendatzeco erremedio ona aplicatu dirazu oraingo ori; bada soro terreno gucietan gauza guchi eguiten badet, ta guero ayen erdietan bacarric gauza asco eguite ezquero erremedio onac bearco ditut artu; ta onegatic arritzen naiz aurretic aplicatzen dan erremedio orrequin; cergatic lenago guchi eguiten deana icusita orain modu orretan soroan otea ereiten icusi ezquero, uste det nagusia ere quejatuco litzaqueala, zoratu ote zatadan edo familia cerequin mantentzea esperatzen ote dedan, soroan parte bat otea ereinic. Eta nic ere an esango nuque, bada, modu orretan ideaturic, nola mantendu bear degu»

E. Soroan otea ereitea gauza bajua

iruditzen baldin bazatzu, badago beste erremedio bat ere, ta chit ona, ta soro lurrac guchitu gabe eguin ditequeana. Erremedio au da erotsitzea caletaco comun simaurrac ta soro guciari ematea, dana ongui gozatzeco moduan, eta eguingo dituzu len baño ascoz lagore obeac geyenetan. Erremedio onegatic uste det esango dezula, bacendiquizula lenago ere ona zana al izan ezquero, baña oraindiç etzerala irichi modu oyetara. Modu onetan arquitzen bacera, zuretzaco erremedioric egoquiena da lenengoa; baña ceorrec comprenditu bear dezu nun, nola ta cer aci genero erein: hiñaurquin falta aundia badaucazu, ta soro lur aundiac, conveni zatzu ereitea soroaren esquina edo parajeric escasenetan otazuria, chit ona da bada hiñaurquiñac ugaritzeco ta lurrarentzaco gozagarri ona eguiteco. Soroac guchitzeac berdultzen bacera, beguira zatzu lenago soro edo lurascoan cembat eguiten dezun; ta acaso icusi ta observatu ere eguingo zenduan onuzquero campo edo terreno iguala izan arren, batec dituala ogueita amar anega arto, eta besteac amar anega bacarric, au

da, bestearen irutatic bat, ta modu onetan beste gañeraco gauzaquin ere. ¿Certaco dira bada campo asco baneatzen eguiten diran neque ta icerdiac?

Icusi dezagun cer tamaña edo modutan izaten dezun ganaduactatic aprovechaméntua edo artu bidea. Iruditzen zat guchi gora bera ibiltzen cerala esatea noan eran: chalach ongui gobernatzeco ez dezu urte gucian izaten illabetecoajanari gustocoric, eta ogueita amar eguin bear lituqueanaquin, guelditzen cera ogueiequin; bei bat zaartuta, edo laneraco edo bicitaraco efectoren bat dualaco, guicentzen jartzen badezu, erdi guicenduan saldu bearrean guertatzen cera, ta berroguei eguin bear lituqueanaquin guicenduta, guelditzen cera ogueita amarrequin; eta iri pare bat dezunean, zaartu dielaco, edo aitzaquiren bat duelaco laneraco, cere echean guicentzeco beldurrac, obligatzen cera salducera bi edo iru onzacoz bajuago, echean gueldituco cinduzqueana, ongui guicentzeco janariac jarrita bacenduzque. Alde batetic bacarric etzerade guelditzen, bada, clase bajuan, urtea neque pean pasa arren.

G. Necazari gucioc asi ezquero chal aundiac acitzen, ta bei ta iriac guicentzen, ez ote litzaque guertatuco ganadu flacoa nundic erosiric ez izatea, badaquigu, bada, gure erri oetan bertan jayotacoric guchi acitzen dana, ta gañera araguaia mercatzea?

E. Ez beldurtu, ez icaratu batere bi gauza oyegatic, bada beti izango da ganadu flacoa nundic erosia, cergatic beste provinci ta lecu ascotan emengo erara edo modura ideatu ta ecin ditezque vici; ez eta araguaia mercatu beldurric eduqui, cergatic ascotan icusi izandu dana da araguaia merqueago guchi egonaz, asco egonaz baño, bada asco dagonean campo errietara eramaten da asco, ta guchi egondu ta baña gueyago eguiten du araguiac.

Cembat necazari eche daudela uste dezue euscal errietan, charrac direla juzgatzeten dienac, regularraren clasera azcar igoco liequenac; eta beste cembat regular claseco lendabico mallara igoco liraquenac norc eracusi edo ideaturen faltaz, echeac berac dituan gauza edo gayac ongui gobernatzeten? Asco dirala clase oneta-coac nic esango nuque; baña utziric alde-

batera au eta beste consideracio asco
 eguingo nituqueanae, eta esanic daucagun
 ezquero laugarren claseco necazariaren
 gaitza Jala chit aundia, ta gaitz aundi au
 certan eta nun dagoan goacen esatera hitz
 bitan gaitz ori quendutzeco edo sendatzen
 asitzeco eremedioa. Lenago ere cerbait
 esandegu, ta conveni zatzu, hiñaurquin
 falta badaucazu, soro terrenoen erdiac
 ereitea ota zuri, ta belar genero on ba-
 tzuac, nola diran alfalfa, Franci-belarra ta
 Itali-belarra. Genero oec erein litezque er-
 diric char edo escasenean, beste erdiric
 onena lagoreac eguiteco utzitcen dezula.
 Orrela eguinaz, lenago soro char guciari
 piscabana ematen diezun gozagarri ori,
 izango dezu erdiari regular autzean ema-
 teco moduan, eta ota zuriac urte bitic bira
 ematen duanaquin irichico zatzu ongui
 terrenoac gobernatzeco modua; eta emen-
 dic etorrico zatzu ganadu flacoac saldu
 gabe, guicentzeco modua, ganaduactatic
 aprovechatzecoa, eta lurrac ongui guber-
 natzecoa, izaten dezula lenago soro terre-
 no gucietan baño lagore gueyago ongui
 gobernatu ta erdietan; ta guero surtaco

egur eceac igargarriaquin artu oiduten be-
cela, artuco dezu indaria, ta ongui indar
artuta gueroagoan artu liteque asmoa edo
idea piscabat soroac añaditzeco.

Modu onetan seguituaz aurreratu ta me-
joratuco dezu necazaritza alde gucietatic,
ta lenago baña neque guchiago eguiten de-
zula, allegatu edo igoco cera clase edo ma-
lla aundiagoco oyetara.

G. Lurra onduceco simaurra nola go-
bernatu bear da ongui izateco?

E. Lecuac aguincen badu ganaduen
azpietan ondo eguindacoan aterata zaba-
lean ondo legortu; guero luzaroetan bero-
zen pillan eduqui gabe legorrean apurtuaz
gozacen seguitu. Ascoc abonatu izandu du
chori simaurra deicen zayona, ta ona da
maiztar baten aldaeran edo beste orrelaco
dembora particular batean accio bat egui-
teco beste medio aundiric ez dan dembo-
ran; baña ez da ona seguituan lurrari ema-
teco; cergatic quencen diozcan lurrari or-
duan eta guero bear dituan sustanci gu-
ciac lenengo urte batean edo bian, eta be-
ragatic genero orrequin seguitu ezquero
ecarcen ditu lurrac auldu eta gaisotucera.

IRUGARREN PARTEA.

Ganadu-janariac ereiteco moduaren
gañean eracusmenac.

ZAZPIGARREN ADVERTENCIA. CEÑETAN ERACUS-
TEN DAN: ALFALPA EREITECO MODUAREN
GAÑEAN.

Alfalpa ereiteco terrenoa eslegitu edo auqueratzea conveni da soro lurra; au da, ez dedilla izan lenagotic lagoreric erein gabeco lur berria, gañera ere conveni dan gauza da aldan lurric sendoen edo lorie-
nean, belar gaizto edo ciquinquerietatic aldan garbienean, eta aldan paraje edo le-
curic beroenean ereitea. Alfalpa acia al-
izan ezquero erein bearda Española dei-
tzen dioguna; au da Españiaco acia, cer-
gatic urtean ebaitaldi edo corte bat gue-
yago ematen duan, Frances-acia gandic,

ta dembora gueyagoan iraun edo vici ere eguiten dan. Lurrean ereiteco dembora da Marcho illaren lenengotic Agoztuco illaren erdira bitartean.

G. Lenago ez det erein aci genero oyetacoric, ta beragatic galdetzen det cer modutan edo nola baneatu bear dan lurra ereiteco, eta cembat aci bear dan terrenoac señalatuaz?

E. Lurra lendanaz ongui urraturic componduta eduquitzea conveni da. Gaitzeru bat gari-aci erein edo botatzen dan terrenoan conveni da bost libratie sei bitartea; gueyago edo guchiago erein bear duanac, emendic atera detzaque contua; acia nastutzeco demboran guchi urratu bear da lurra, assalean guelditu dediñ acia, ongui ernetzeco.

G. Eta guero cembat demboran guchi gora bera iraungo du, ongui ematen duala?

E. Alde batera señalatu diteque alfalparen vicia eta bestera ez; bada ongui laguntzen bazayo urtean beiñ lurra ongui baneatu ta componduaz, urte ascoan iraungo du; ta berriz acia erein ta ebaqui beste casoric edo lagunzaric ez bazayo eguiten,

sei edo zortzi urtean irautea asco da frutu
ona emanaz.

Alfalpac lurrari asco quentzen diolaric
edo asco jaten dualaric, ori galduta ondo-
rengo urtetan lagoreac ematen du len ba-
ña asco gueyago, cergatic alfalpac quen-
tzen dion lurrari, lagoreac quentzen ez
dion zumu generoa, ta onegatic guelditzen
da lurra mejoraturic eta calidadea muda-
turic becela. Baña conveni da advertenci
chiqui bat edo atencio piscabat artutzea,
alfalpa ondoco lurraren mudanza edo me-
joraz aprovechatzeco, bada necazari asco
descuidatu izandu da, alfalpa ondoa gue-
yegui urratzequin, cergatic guero lagore
ernea ecin arrapatu izan duten; eta one-
gatic conveni da alfalpa ondoco lurrac le-
nengo mudanzan layatu ta ongui urratuaz
compondu ezquero, ondorengo iru bat edo
lau bat urtean assal edo guchi urratuaz
lagoreac ereitea.

Ez da ere erein lear alfalparic lenago
izandaco lecuan, lenago berac iraun zuan
aimbat urte igaro bitartean, ez dualaco
ematen lecu aldatuan edo mudatuan be-
cela.

ZORTZIGARREN ADVERTENCIA. CEÑETAN ERACUSTEN DAN; FRANCI-BELARRA EREITECO MODUAREN GAÑEAN.

Franci-belarra deitzen diogun aci generoa ereiteco ez da ibilli bearric lur lori ta aundiaren billa, cergatic belar genero onec ematen duan edoceñ lur me samarretan ere, ta lur berria izan arren ere bai piscabat aurretic gozatua egon ezquero. Belar genero onec dauca gaur necazari ascoren artean lamaric andiena, cergatic alfalpari arguitu zayon urte oetan gaitz bat, ceñac ecartzen duan galtzera bere demborra baño lenago.

Franci-belarra ereiteco ere demboraric egoquiena da Marcho illaren erditic Agoztu illaren erdira bitartean dembora onarequin: erein diteque gariac arretzeco demboran, gari tartera acia botatzen dala; chartarequin nastuta ere erein diteque, baita ere arto tartean pagocha erein oidan moduan; baña demboraric egoquiena ta moduric onena da arbiarequin pagocha be-

cela ereitea, ondorengo bi udaetan ongui emateco. Belar genero onen iraupena edo vicia da lau edo bost urtecoa; baña mejora obeagoa ateratzen du necazariac bi urtetaco frutua artu ta mudatuarequin, cergatic lenengo bi urtetan genero ugaria edo abon-dosoa dalaric, asitzen da irugarren urtera-co galdutzen, ta gueroago ta gueyago gal-dutzen, eta guchiago ematen seguitzen du.

Necazari guciari conveni zaye belar ge-nero au ereitea, asco edo guchi bere neca-zaritzaz conforme, ta particular lagoreac ongui jorratu gabez, lurrac ciquinduta ar-guitzen zayonantzat, cergatic, bi urteco esan dan becela Franci-belarra eguinaz, garbitu ditzaquean soro lur guciac, eta dembora berean ganadu-janariac ugaritu eta ganaduaquin mejoratzeco modua izan-go duan.


BEDERATZIGARREN ADVERTENCIA. CEÑETAN ERA-CUSTEN DAN: ITALI-BELARRA EREITECO MODUA-REN GAÑEAN.

Itali-belarra deitzen diogun aci generoa

da, erein ditequeana edoceñ terreno baztarquin, lenago ecer asco esateco moduan eguiten ez dan parajea lur arroetan; baña beste edoceñ gauzac becela, genero onec ere nayago du lenago soro dabillena, edo beste moduen batez ongui gobernatuco terrenoa, ta berac conformidadean pagatzen du. Necazariac idea edo asmoa artutzen duanean belardi bat ipintzeco edo eguiteco lenago soro edo lagoreac eguiten dien terrenoan, edo esateco moduan, lenago ecer asco ematen ez duan terreno zacarren batean berez sortzen da belarra gobernatu ezquero, baña comparatu dezaquegu belarra arbolarequin, guztioe daqui-gu, bada, arbola genero batequin terrenoa ocupatu edo beste genero batequin ceñ diferenci aundia dagon necazariantzat; diferencia modu berean dago ganadu-janariaquin ere, beragatic necazariac jarri beardu arreta edo atencio aundia ganadu janariaquin, ta asco importa edo balio du gauza onec necazariantzat.

Itali-belarra ereiteco acia conveni da botatzea arroba bat, anega erdi bat gari aci bota edo ereiten dan terrenoan; gueyago

edo guchiago erein bear duanac emendic
 atera detzaque contua. (Belar genero onen
 acia saldutzen da, beste aci genero asco-
 requin batean, Bayonaco almacenetan)
 Belar genero au ereiteco ere da dembora
 Marcho illaren erditic Agorraren lendabi-
 cico egunac bitartean; baña demboraric
 egoquierna ta moduric onena da Marchoa-
 ren erditic azquenera bitartean chartare-
 quin nastuta. Itali-belar onen bicia edo
 iraupena da bost edo sei urtecoa.



LAUGARREN PARTEA.

Ganaduac gobernatcearen gañean
eracusmenac.

AMARGARREN ADVERTENCIA. CEÑETAN ERACUS-
TEN DAN: GUIARACO TA LANERACO ACI BEAR
DAN GANADUAREN GAÑEAN.

Guiaraco ta laneraco aci bear dan gana-
du abelgorria, conveni da egunero cam-
poan erabilli bat ematea ta regular an-
tzean gobernatzea, Ganadu clase onequin
necazariac eduqui bear du atencio edo arre-
ta aundia jayotzen dan demboratic asita
atz-burua artu artean edo izango diran
aimbat aci bitartean, cergatic utseguitea
eguin litequean. edo perjuicioa edo caltea
etorri ditequean bi modutara: lenengoa,
ganadu gaztea jayotzen danetic casoric

eguin gabez, quenduaz bere amari dauzcan esne guciac edo gueyenac ta jan guchi emanaz, escastu ta escaitutzen dalaco, ta guero ez da beiñ ere bear becela irabazteco modura allegatzen; eta ascotan, beti ez bada ere, ganadu charra ta medracaitza izango da orrelacoa; acaso batzuac bere nez izango dira clase orretacoac; baña asco izaten dira jabeac atencio edo arretaz beguiratu gabez: emendic dator perjuicioa edo caltea lenengo ganadu ori acitzen asi danarentzat, ta guero erositzen duanarentzat. Bigarrena, ganadua jayotzen dantec artutzen bada guicentzecoaren moduan ongui gobernatzan, ta bei-gaya, bada, echetic atera gabe, cembat necazariac eduqui oi dituen becela, lenengo cece-narengana juan bear duen arteraño, ta guero ere ascotan erabilli gabe uztarrian edo lanean asi bitartean, dudaric gabe, asco ateraco dira bei charrac. Cecorrarequin modu berean guertatzen da, iriac aci bear dirala, ta uztarrian lenengo campoac icustea: onela guertatzen da, bada necazari ascoren artean, eta lenago esan degun becela bi moduetara dator perjuicioa edo cal-

tea, escasegui edo gaizqui gobernatuaz gazte edo tierno dauden bitartean, beren demboraraco escastu ta escaituta guelditzen direlaco; eta ondoegui gobernatuaz janari zacar antzecoric jaten icasten ez dutelaco ta beti ongui gobernatzeco paraje edo lecuán allegatuco ez dielaco. Conveni da, bada gazte edo tiernoac dauden bitartean, ezcaitutzen utzi gabe guardatzea bere gayac galdu ez ditzan; ta guero bere regular modu batean gobernatuaz egunero campoan erabilltzea, dembora ascoan ecin bada ere, ordu pare batean benic, guero gogorrac izan ditecen ta campoco berri lenengotic icasi dezaten: era edo modu onetan seguituaz acitacoac ez du izaten, beste lenago esan ditugun bi modu ayetara acitacoac aimbat beldur, ez janariaquin eta ez beste gauzarequin condicio ta costumbre charrac artutzeco.

AMAICAGARREN ADVERTENCIA. CEÑETAN ERACUSTEN DAN: GUICENTZECO GAÑADUAREN GAÑEAN.

Chalari tierno dagoan bitartean esne as-

co eranatci bear bazayo, conveni da erana-
 citzea ur fresco piscabat ere, amabost
 egun dituanetic aurrera berdura edo jana-
 riac jaten asi bitartean astean iru aldiz
 onela esnequin obeto mejoratzen du, ta
 jaten ere ascoz lenago asitzen da, batzue-
 tan bada falta chiquia asco izaten da per-
 juicio edo calte aundia ecartzeco: onela
 ascotan izandu da icusi, chalari esne asco
 eranatci, ta mejora eguin bearrean caltea
 eguiten, gaizquitzen dielaco chal tiernoac
 esne ascorequin, ur fresco pisca bat erana-
 citzeco advertencia artu gabez. Chalac be-
 rac uda edaten icasi bitartean eranacitzen
 zayo escu bat aoan sartu ta bestearequin
 pisca banan botatzen dala.

Ganadu zarrac guicentzeco idean ipin-
 tzen diranean, lenengo atera bear da con-
 tua cembat demboraraco ta cer modutan
 emateco moduan dauden jatenac, ta guero
 ganaduac guicentzen cembat demboraco
 lana daucan guchi gora bera bere ichuraz
 conforme, onetaraco jaquiten dala lenago-
 tic lanetic guelditu berria dan edo ez, cer-
 gatic diferenci aundia dagoan guicentzeco
 demboran ganaduacquin, bere biguntasu-

nean ta janariac ongui artutzeco, lanetic guelditu berria egon edo descansatua dem-bora regular batean.

G. Certaraco artu bear dira orrembes-te cuidadu ganaduac guicentzeco?

E. Comparacio chiqui bat eguingo degu oguiarequin, ta beraren bitartez enteratuco cera diferencia nola ditequean ta cuidadua artutzea ceñ ona dan. Panaderoac artutzen du anega bat gariaren iriña, oguiac eguiteco, ta orratzean bereala sartzen badu labean, dudarie ez dago ateraco zayola ogui charra. Guero artutzen du beste anega bat gariaren iriña, ta orratzean eman deyola conveni zayon descansua labean sartu baño lenago, ta ateraco zayo ogui ona edo len baño obeagoa. Orra bada cer diferencia arquitzen dan gauza eguiten, cantidade iguala castatu arren, modu batera edo bestera eguin edo ideatu; bada ganaduacquin modu berean guertatzen da diferencia, necazaria cerequin edo nola ideatzen dan.

G. Erositzen badet iri pare bat Illbeltzaren asieran Apirillaren ogueiraco guicentzeco esperanza, edo idea edo asmoa-

requin, eta guicentzeco contatzen deala beste gauza gueyagoquin batean arbi trozo bat, ceñetan deizquioan badaudela, iriac guicentzeco señalatu dedan dembora orretaraco guchi bat gora bera egunean amar arroba arbi emateco modua, egun ero amar arrobaco modua emanda edo diferenciaquin emanda, nola gueyena mejoratucoco det, edo nola da onena ematea?

E. Eun ta amar bat egun dira zuc iriac guicentzeco contatzen dituzunac, ta egunean amar arrobaco moduan arbiac sumatzen dute edo dira milla ta eun arroba, ta conveni da ematea ganaduari diferenciaquin, guertatu ez dedin lenengotic amar arrobaco modua iriac jan etcina, ta jan arren ere ascoc bere caltean, cergatic beldurrarequin costumbratu gabeac izaten diran campo errietatic ecartzen diran iriric gueyenac, ta piscabanan costumbratuaz, gueroago ta gueyago jango luteque, gañera berriz betic igual emanda, guicendu gabe gueldituco dira ascotan, esan ditugun jan oyequin. Esan degu laneraco edo bicitaraco dagoan ganadu gaztean gobernatzeco modua conveni ez dala ganadu

zar edo guicentzeco ipintzen danarentzat, ta orain icusi detzagun iri oyec guicentzeco gobernatu bear diran modua.

Lenengotic contuac aterata asi bear dezu lau bat arroba arbico modua guchi gorra bera ematen, pensu, zaldale, lagore edo bicigarriren batequin, ta belar ondu, allorbe, arto-orri, lasto edo onelaco legorgarriren batequin ongui lagunduaz, ta particular neguco frescura edo otzaquin; onela descansatuaz janariac piscabanan ongui artu ditecen ta bigunduaz guicentzeco sasoyan jarri ditecen. Bigarren illeraco asico dira piscabat janarietara jarritzen, ta beragatic conveni da lenengo amabost egunetan, egunean sei arrobaco modua ematea, ta beste amabost egunetan amar bat arrobaco modua. Irugarren illeraco jarrico dira gueyago jateco moduan ta conformidadean irabazteco estaduan, ta eman liza-yeque oguei egunean, eguneco amairu arrobaco modua; eta emendic aurreraco illabetean, eguneco amasei bat arrobaco modua. Era onetan jango dituzte, iri regularrac izan arren, lenago icendatu ditugun arbiac,

eta era edo modu onetan onguiena ere guicenduco dira.

G. Idea onequin ere badaucat cuidadua artu bearra, cergatic neguan arbiac sasoiric onena dauqueanean, guchiena emateco encargatzen dezun, iri flacoac ez jateco ta ez irabazteco sasoyan ez daudelaco; eta uda berrian arbi asco emateco esaten dan demboraraco gogortu ta zuztartzen badira arbiac ¿Cer eguingo dute edo nola guicenduco ditut iri flacoac?

E. Cuidadu ori orain artu dan becela, arbiac ereiteco demboran artu bear da, eta ordutic enteratu bear da cer clasetaco arbiac erein, ta noiz, nola ta cer modutan gastatzea conveni dan. Aurretic jarri degun regla edo ejemplo orrequin enteratu diteque, contuac aterata, naiz gueyago ta naiz guchiago izaten duan necazaria.

Euscal errietan guicentzen dan iri ganadua izaten da gueyena campo errietatic ecarria, ta emen bertan guicentzeco izaten diran banaca ayec ere ez dirade guciac izaten berdura janariac ongui artutzeco moduan daudenac lanetic guelditzen diran demboratic bereala, cergatic lan gogor

edo aundietan dabilzatenac pensu utsarequin erabiltzen dituzten, ta ascoz guchia-go izaten da berriz berdurarengana acostumbratua campotic onuntza ecartzen dana. Onegatic izaten da beguiratu bearra ta particular negu partean ganadu flacoari berdura guchi emanaz, ta pensu edo lagorearequin lagunduaz indarra eguin ta berduraran jarri bitartean.

G. Modu orretan diferente gobernatu bear dira guicentzeco ganaduac negu partean eta udaran?

E. Dudaric ez dago diferente gobernatu bear dirala: neguco dembora otzarequin berdura asco ematen bazayo ganaduari, ez da mejoratzen inola ere, cergatic, berdura asco izaten ez bada ere negu partean, ascoc gastatu izandu duan mejoratzearen lecuan, perjuicioan; onegatic conveni da neguco dembora gogor edo otzarequin, berdura asco gastatu gabe, pensua edo lagorea, bacoitzac bere moduaren conformidadean emanaz ganaduari lagutzea; gobiernu modu au eguiñarequin, ganaduac pagatzen du ascotan bi edo iru ematen bazayo lau edo seiequin. Berdura

janariaquin ganaduari ematen asi bear da. Uda-berri aldera dembora berotzen asitzen danean, ta demboraren erara cembat ta gueroago, ta cembat eta beroago orduan ta gueyago lagun du uda-berrico berdura janariaquin ganaduari, cergatic neguco partez orduan izaten dan dembora ganaduac asco jan eta asco irabacitzecoa, ta gañera contuac on-gui aterata ideatzen danac provechu onac ateratzecoa.

Uda partean guicentzeco jartzan dan ganaduaquin, ez dago negucoarequin aibat cuidadu artu bearri berdura janaria emateco, neguco dembora otzarequin becela gaitz eguiteco beldurric ez dualaco. Baña udaran ere mejora gueyago ateratzen da, guicentzeco jartzan dan ganadua flacoa edo aul-samarra bada, pensu piscabat indar artu artean benic eman da; baña ez dauca udaran neguan aibat dembora descansatzen egon bearri, bada sarri asi zaitzque gogotic ematen, cergatic udaco berdura janariac suaveago artutzen duan lenago acostumbratu gabeco ganadua izan arren. Udaran guicentzeco jartzan dan ganaduari lenengotic asi bear da belar edo

janari zacarrenac emanaz, gueroago ta obeagoac emateco, ta azquenera ta gueyago gustoac cumplitzeco. Cembat ta gueyago jaten duten, orduan ta sarriago edo maizago eman bear zaye; baña eman-aldi bacoitzean asco eman gabe, piscacho bat alditan baña sarritan, ta lenengotic gauzaric zacarrenac, guero gueyago ta obeac emateco. Ganadu janari gozoac ta indar gueyagocoac izateco, belar genero guciari atz burua artu baño lenago eman bear zaye cortea, bada ascoc utzi oiduan becela, eduqui ezquero legortu artean, perjuicio edo caltea bi modutara etortzen da; lenengo ganaduantzat ascoz indar guchiago izatea; ta bigarrena, lurrac gogo guchiago berriz emateco. Naiz dala, bada, berdetan gastatzeco, ta naiz igartu ta onduta, conveni da ebaquitzea atz-burua artu baño lenago. Guicentzeco ganaduacrequin artu bear da azpiac sarritan ateratzeco cuidadua ere: jaten guchi ematen zayon artean astean bein atera bear dira, ta guero ematen asitacotic aurrera guchienaz astean bi aldiz.

G. Ganadu flacoac ongui guicentzeco

modua icastea ona dan becela, ona izango da saldu ta erosi eguiten icastea?

E. Dudaric ez dago saldu ta erosi ongui eguiten jaquitea gauza ona dana; baña onetan uste det ecin ditequeala betico ongui eracusi, cergatic, esan oidan becela, dembora izatenda mercatari: erostea juaten ceranean, saltzalleac eracusico dizu, ta saltzea juaten ceranean, erostzaleac eracusico dizu, onela beti izango dezu norc eracusia.

AMABIGARREN ADVERTENCIA. CEÑETAN ERACUSTEN DAN: CERRI GANADUA GOBERNATZECO MODUAREN GAÑEAN.

Guiaraco edo umeac eguiteco eslejitu edo auqueratuta jartzen dan cherri ganadua conveni da gobernatzea regla regular batean umeac eguin bitartean, cergatic atera ezquero reglatic campora, au da, naiz gaizquiegui gobernatuta, ta naiz obe-toago edo onguiegui gobernatuta izaten dan perjuicioa edo caltea: gaizqui gober-

natuaz, cherri nequez acia edo ezcaitua guelditzen dalaco; ta onguiegui gobernatuaz, umeac eguiteco demboran gaizqui ateratzeco peligro gueyago izaten dualaco. Umeac eguiteco cherria gobernatu bear da bada regla regular batean, ez gaizqui ta ez ondoegui, baicic biren bitartean, umeac eguin arteraño. Umeac eguiten dituan demboran artu bear da cuidadua egun batzuetan gauza guchi ta ona emateco, ongui asentatu edo guelditu dedin. Guero aldan onguiena gobernatzea da ventaja, gucioc daquigun becela.

Guicentzeco jartzen dan cherria, urte gucian eduqui bear bada, ez da conveni beti lagore utzarequin costumbratzea, baicic berdura gauzarequin nastuaz; eta lenengotic etzurra aci bitartean obeago da umetaracoaren clase regular moduan gobernatzea. Gueroago ere, lagore utsarequin baño obeagoa da, gobernatzea berdura on piscabatequin nastuaz, bada aundiagoac edo lasayagoac ateraco dira. Genero bat bacarric ez da obeagoric cherria azcar guicentzeco gaztaña grano ona erosita baño.

Cherri ganaduacquin badago artu bearra beste cuidadu bat, ta asco importa duana, eta da cherritoqui onac ta lecu onean eguitea. Cuidadu au artu gabez, lecu ascotan galdutzen dira cherriac, bada cherri clase guciac icasten dute lurra jaten, ta particular gazteac, baldin badaude lurra edo tufa dagoan cherritoquian. Chit guchi izaten dira, bada, conveniencian eduqui ezquero, lurra jaten icasten ez duenac, ta lurra jaten icasita dembora piscabateco lecu eman ezquero, asco da au, beren dembora guciraco cherriac galdutzeco, cergatic guelditzen diran barrun gucia ciquinduric, jale charrac eta medracaitzac. Gauza oyeri beguiraturic, conveni da cherritoquia eguitea paraje gogorrean edo lecu sanoan, hitz batean esateco, cherriac lur edo tuparic jateco ecin irichi detzaquen lecu moduan.



BOSTGARREN PARTEA.

Necazari euscaldunaren lagoreac ereite-
co gañean eracusmenac.

AMAIRUGARREN ADVERTENCIA. CEÑETAN ERACUS-
TEN DAN: ARBIA EREITECO MODUAREN GAÑEAN.

Arbiac ereiteco dembora edo garairic
escogituena edo auqueratuena da Aboztu-
co illaren amairutic amazpira bitartean.
Conveniencia izanic ereiten badu batec
paraje ospel edo layotzean egun guchi ba-
tzuaz lenago, ez du calteric izaten, indar
piscabat artutzeco dembora otz edo fres-
coa eguiteraco; baña modu orretan ideatu-
ta ereiten bada paraje egutera edo beroan,
ascotan perjuicio edo caltea izango du,
cergatic arbi aundienetatic edo asco zam-
brotu eguiten diran.

Arbiacquin ongui aprovechatzeco necazariac erein bear ditu guchienaz bi arbi clase edo genero; ta ez asco icusi oidiran moduan terreno gucietan arbi clase edo genero bat bacarra ereinaz seguitzen, bada ascotan guertatzen zayo onelacoari, demboralea beste urte ascotan baño piscabat aurresego etortzen danean, arbi trozoac garatu edo loratu ta alferric galdutzea, cergatic dan janari zatarra ta aula arbi loratua. Onegatic ongui beguiraturic, necazariac guchienaz erein bear ditu bi clase edo generotaco arbiac; lenengo edo aurrena janeratcitzeco, lendabici loratzen dan clasea, ta gueroago gastatzeco beranduco arbia, Mayatza bitartean loratzen ez dan clasea. Modu onetan arbi clase diferenteac ereiten dituan necazariac, izaten ditu iru ventaja; lenengo arbiloratuac lurra elcortutceco beldurric ez izatea; bigarrena, trozo edo sall aundiac baditu ere, beti sasoyan ganaduarijaneratcitzeco conveniencia; ta irugarrena, provechu aundiagoac ateratzea, ta conveni zayon garayan despachatzea.

Lurrarentzaco gozagarri edo simaurra regular edo ugari izaten duan necazariac,

arbiac erein ditzaque modu onetan: lenengo bota lurrari gozagarri edo simaur onen edo fiñenac, urrena acia bota ta nastutzean berdiñdu bat eman, eta gañera bota guero gozagarri edo simaurric zacarrenac. Lurrarentzaco janari guchi izaten duanac eguin detzaque beste modu batera, artoaren guisa edo erara illaraetan. Artoac ereiteco moduan, lenengo marquero batequin erreca edo arrastoac eguin, ta erreca oyetan acia bota aurrena, ta guero simaur onenetic piscacho bat aciaren gañera, asco bota ezquero ez da bada ongui ernetzen, ta azquenean aciac nastuta errecac berdindutzean, bota deyoque simaur on ta charaldan gucia gañear. Modu onetan arbiac ereiteco, au da azpira ta gañera, bietara gozagarria regular emateco, asco bear dala irudituric, guciac azpira eman, eta ereitea, baño obeagoa da lurrarentzaco, dagoana erdibana, bi aldetara botatzea; cergatic zaborreri edo edoceñ zacarqueriz estalita dagoan lurra, eguzquiac nequezago legortzen duan, ta euri jasa aundiac eguin arren ere telatzeco edo gañean atzal gogor aundiric eguiteco beldurric izaten ez dualaco.

AMALAU GARREN ADVERTENCIA. CEÑETAN ERA-
CUSTEN DAN: ARTOA EREITECO MODUAREN
GAÑEAN.

Artoa ereiteco dembora edo garairic es-
cogituena edo auqueratuena da Mayatza-
ren seitic amabira bitartean. Dembora
onarequin erein diteque egun guchi ba-
tzuaz lenago lur layatuan ta egutera edo
beroan; eta lur layatu gabea ta terreno
ospel, layotz edo otzean egun guchi ba-
tzuaz gueroago. Egutera erein diteque
esan dan moduan, cergatic uda berrico
eguzquiac lenago berotzen dituan lecu
oyetaco lurra, ta onegatic arto ernea
ongui emateco seguridade gueyago dagoan;
eta terreno ospel edo layotzean ta layatu
gabea erein bear da berandu anzean,
cergatic eguzquiac nequezago berotzen di-
tuan lurra, ta arto ernea escasagoa edo
debillagoa etortzen dalaco, ceñac frescura
chiquia asco izaten duten, puntac igartu
ta calte aundia ecartzeco.

Gañera ere artu bearda artoarequin cui-
dadua bacan ereitecoa: arto juntoagui edo

sarriegui ereinaz, lecu ascotan icusi izan-
 du da caltea izaten; onegatic, bada, e:an-
 go nuque, bi soro, campos ta calidadeetan
 igual diranac, erein bear dira arto, ta soro
 bacoitzean conveni dira berrogei milla.
 arto-ale, edo aci edo landare; eta soro ba-
 tean conveni diran berrogei millac ipin-
 tzen dira erreca edo zulo juntoetan ta zu-
 lo bacoitzean bi; beste soroan berriz, con-
 veni diran berrogei millac ipintzen edo
 ereiten dira erreca bacanean ta zulo ba-
 coitzean irunaca, izango dala bigarren so-
 ro onetan, ceñetan erein dan artoa erreca
 ta zulo bacanean ta bacoitzean irunaca,
 beste lenengo soro arretan baño arto gue-
 yago. Errenca bacanean jartzen dan ar-
 toac naiz ganaduaz ta naiz besoz ongui jo-
 rratzeco conveniencia dauca, ta ongui jo-
 rratuac ascoz gueyago aguantatzen du; eta
 erreca edo zulo juntoan edo sarrian jarri-
 tacaoac, ez ganaduaz ta ez besoz ez dauca
 ongui jorratzeco moduric ta ez ongui lurra
 compontzecoric. Comparacioa ateratzeaga-
 tic, esan det zuloan iru arto; baña ez det
 aconsejatzen iñor zuloan iru arto landara
 utzitzeco; baicic erreca edo marca baca-

nean ereiteco: bacantzeco demboran ongui beguiratu bear da arto landarac cer indar modu dacarren; bada indar aundia dacarrenean, gueyena bacantzea conveni da; ta ereineraco utseguitearen batez edo dembora charra izan dualaco baldin badago arto landara argala, eria edo charra, utzi diteque orduan piscabat gueyago, lurra ongui jana ta indarrean badago.

Terreno layotz ta buztin lur gogorretan, ecin erneric ascotan egoten dira artoac, ta onelaco lecuetan, artoac azcar ernetzeco ta indarra artutzeco, operacio ona eguiten duana da ichasoco ondarra. Erremedio au neque aundicoa dala esan bearric ez dago mendi errietaraco, carretara inguruco soroetan eguin litequeana bada ere. Ascotan icusi izandu da, bada, buztin lur gogorretan artoac ecin erne dirala, batzuetan euriac arturic tela edo atzal gogorrac gañean eguin ta galeratzitzen dielaco; ta beste batzuetan lurraren frescurac galera-tcitzen dielaco, izanic artoaren ama, eserra dan becela, beroa. Onela lurretaraco esan degu ondarra ona dala, cergatic ez dan telatzen euria eguiñ arren, ta gañera

beroa dalaco, ta artoarentzat ongui dato-
 rrena, edo dira biac elcar ongui artzen du-
 tenac. Ichasoco ondarra artoari ongui apro-
 vechatzen dala emateco modua da: eman
 bear zayon baño lenago simaur on pisca-
 batequin nastu, ta arto aciac zuloetan jar-
 tzen diranean, piscacho bat botatzen dala
 zuloetara arto aleac estaltzeco moduan.
 Guero gañetic simaur edo aldan zaborre-
 riaquin estaltzea ona da lurrari itzal egui-
 teco.

AMABOSTGARREN ADVERTENCIA. CEÑETAN ERA-
 CUSTEN DAN; GARIA EREITECO MODUAREN
 GAÑEAN.

Garia ereiteco dembora edo garairic es-
 lejituen a edo auqueratuena da Azaro illa,
 batzuentzat lenengotic, ta beste batzuen-
 tzat azquenean. Terreno layotz edo izotz
 lecuetan, ta osoz ere lecu altuetan, ta lur
 indar guchicoa ta ciquiña badago conveni
 da garia ereitia. Azaroaren sarreran, otx
 aundiac asitzeaco indarra artu dezan, cer-
 gatic onelaco lecuetan ereiten bada garia.

beranduan, ta dembora otzac edo charrac ematen badu, ez da ongui ernetzen, ta erneta bereala edo erneberria arrapatzen badu ere dembora charrac, galdutcen du. Terreno beroan ta ongui gobernaturan goitz antzean garia ereiten bada berriz, lenengotic artutzen du indar aundia; ta azque-neraco falta izaten du ascotan, cergatic gueyenetan eguiten dan trastornatu edo nastuta lurrera erori: gauza oeri beguiratu ta ideatu bearda, ta auqueratu gariac ereiteco dembora, bacoitzac bere parajeaz conforme.

Acitaraco jartzen dan gariari eman bear zayo bañu bat, ereitea baño lenago.

G. Ereiteco gariari bañua emateco costumbre ori certaco da?

E. Ereiteco gariarentzat gauza chit ona dala esango nuque bañua emateco costumbre ori, baldin ongui ematen bazayo; eta dudaric batere gabe da jarria, escarmentuac icusiric, gure aurreco necazari zarrac, garitan añoric ez izateagatic.

G. Ceñ demboratan ta nola da bañu ori ongui emateco modua?


E. Gariari bañua emateco dembora

edo garairic auqueratuena ta onena da Agorreco illaren illberan. Lenengo jarri bearda gaitceru bat gariarentzaco platera regular bat bete care, ta chiqui erdi bat becela ura; conformidade onetan jarriric carea ta ura bañatu bear diran gariarentzat, elcarrequin danac, besoac necatzen diran moduan, ongui orratu ta pilla bildu; ta oqueita lau ordu pillan cumplitzean, zabaldu ta ongui igartu. Bañua eman ta ongui igartutzen danetic, ereitera bitarte gucian beti igar conservatu bear da ifar- aiceac jotzen ez duan paraje alai batean jarrita.

Necazari euscaldunari tocatzen zayon genero baten gañean, ez det ipintzen eracusmen edo advertenciric pensaturic euscal errietaco emacumeac artuco dutela, oraindaño artu izandu duten becela cuida- dua gauza edo prenda estimagarri ori erein ta gobernatzeco; linoarengatic ari naiz itzeguiten. Bada euscal errietaco emacumeac, dudaric gabe, aurrecoetatic datorquien aficio edo inclinacioz icusten

dira cuidadu edo arreta aundiarequin linoa ereiteco ta gobernatzeco, ta beren senarrac siestan dauden bitartean ere, arturic instrumentuac, au da linaya ta ardatza deitzen diegunac, jarduten dira aria eguiten.

Arrazoy daucate orrelaco emacumeac, icusten degu bada beren escuz berenezco oficialeac becela, eguiten dutela campo errietatic ecartzen dan baño tela obeagoa.



SEIGARREN PARTEA.

Arbola aciac ereiteco gañean
eracusmenac.

AMASEIGARREN ADVERTENCIA. CEÑETAN ERA-
CUSTEN DAN: SAGAR ARBOLA IPINTZECO TA
GOBERNATZECO MODUAREN GAÑEAN.

Sagar acia ereiteco dembora edo garai-
ric escogituena edo auqueratuena da Mar-
choco illa. Chertaca perfectoaren acia
erein bear da, edo conveni da ereitea, ar-
bolac dembora gueyagoan irautendu bada,
ta fruta obeagoa eman ere eguiten du.
Sagar arbolac edo sagastia conveni da
ipintzea al izan ezquero aice ezcutuan edo
lecu beroan; ta gañera ez da asco arbola
ipintzea, baicic cembat ongui gobernatzeco
modua dagoan aimbeste: sagar arbola.

ez da jarri bear juntoegui, bacan gustatzen zayo, ta juntoegui jarriaz izatendiria perjuicio edo calteac modu ascotara. Sagar arbolac indar artu bitartean lagore edo ganadu janarien batzuac eguiñaz gobernatu oida, ta arbola junto edo sarri bada go, itzal eguiten duan aitzaquian, bacan dagoan lecuan baño ascoz lenago, utzitzen zayo gobernatzeari. Arbola aundiric ere ecin diteque eguin junto dagoan lecuan, eta terreno layotz ta ordeca edo celayan fruta asco gozatu edo eldu gabe guelditzen da. Beguiraturic gauza oyeri aleguiña eguin bear da sagar arbola bacan jartzea, ta particular, terreno layotz ta ordeca edo celayetan; bada cembat terreno aldapa ta eguteratan fruta cerbait gozatu edo eldu arren, cergatic arbola junto edo sarri antzean egon arren, arbola aimbesteraño acitzen ez dalaço, terreno layotz ta celayan arbola aundiagoa eguin oida, ta fruta ongui gozatu dedin, conveni da bacan antzean ipintzean.

Sagastia nundic gobernatuic ez dauca nac, obeago du ipintzea eun sagar arbola conveni diran lecuan, laroguei ta beste

oguei jartzeco lecuan, ota zuria ereitea, ta onen bi urtetic bi urtera ematen duan cortea sagar arbolaren ondoetan jarri; gañera tarteac bi aldiz urtean achurtu edo layatu. Gueyago emango diote, bada, laroquei jaten emanac edo ongui gobernatuac, eun gobernatu gabeac baña. Sagarra ematea espera guentzaque, terrenoac diferenciantia dutelatic, bera gobernatzan degun conformidadean guchi gora bera; bada esanic daucagun becela gaizqui gobernaturaco ascoc baño, ongui gobernaturaco erdiac gueyago emango dute.

Arria quendu ezquero, arbolarentzat janari charric ez da, baña bere gobiernotan ongui seguituaz, care piscabat ematen bazayo urte batzuetatic urte batzuetara ondo zañan erdiac arguituric sagar arbolari, urte asco gueyagoco bicia luzatzen zayo; careac gaitzac quentzen diozcalaco; baña nola costu aundicoa dan carea lecu ascotaraco, arquitzen da beste gauza bat ere ona au eguin dezaqueanantzat, sagar arbolari gaitza gartzeco edo libratzeco gaitzetic ta lurra gozatzeco; eta da ota zuria. Au sagarrari emateco modua da, ondoco

zañac piscabat arguitu ta ota zuria bota estaltzeco moduan zañac: onela seguitu ezquero asco guardatzen da sagar arbola gaitz-etatic. Guchienaz sagarrac ongui emateco, eguin bear zayo arbola acitzen danetic aurrera, ondoetara cerbait janaritzat emanaz, urtean bi aldiz layatu edo jorratu: lurra urtean bi aldiz compondu edo baneatuaz seguitzeco ez da, bein baccarric baneatuaz seguitzen baño asco neque gueyago eguin bearric, cergatic ascoz samurragoa egoten dan lur erabili berria.

Sagarra chit gauza ona da necazariენტzat, ta gueyago ecin dezaqueanac ere, guchienaz jarri bear lituque berroguei bat arbola benic soro baztar edo beste esquinaren batean; ta orrelaco sagar arbola banaca oyec gobernatzten chit erraza da necazarien baztarretan, urtean beiñ benic ondoac achurtuaz, soroco arto zuztar edo belar ciquiñac, alferric erre oi diranac, ondoan botatzea asco da.

Izanic sagarra arbola gucien artean bearrena edo importanciric aundienecoa necazariენტzat, obligatua becela egon bear litzaque necazari gucia ipintzeco arbola

genero au bere terreno edo necazaritzaren conformean, arquitzen dira bada paraje batzuetan, necazari batzuen zabartazunaz, besteac ipiñi gabe, beldurra dute-laco beren frutua perseguitzeco ez dauca-ten eta jarri nai ez duten ayec.

Sagarrac urtutzeco Toladaric ez dagoan lecuetan, edo aparte ta neque aundietaco bideac dauden parajetan, aprobechatu di-teque sagarra beste modu batera, au da pitarra eguiteco gordeta. Sagarrac bildu-tzeco demboran, naidanean pitarra egui-teco guardatzeco, cerratu edo partitu eguin bear da labana edo macheta batequin, ta guero ongui igartu paraje alai batean, edo bestela azcarrena ta onguiena labe bat be-rotu, ta an sarturic, gueyegui erre edo quiscaldu gabe, igartu ongui: Modu one-tan ez da galdutzen sagarra bi urtean edu-qui arren; ta nai danean pitarra eguiteco sartu barrican, lenengo ur beroan eduqui bear dira pisca batean, ta guero zambatu legue bat emanaz sartzen dira barrican.

AMAZAZPIGARREN ADVERTENCIA. CEÑETAN ERACUSTEN DAN: GAZTAÑA ARBOLA IPINTZECO TA GOBERNATZECO MODUAREN GAÑEAN.

Gaztaña acia ereiteco dembora edo garairic escogituena edo auqueratuena da Azaroco illa. Arbolac chertatzeco demboran atzal ederra izateco, ta dembora guayagoan fruta emanaz irauteco ez da gaztaña chertaca perfectoaren acia ereitea baño obeagoric muintegua jartzeco demboran. Edoceñ arbola claseco muintegua jartzean procuratu bear da arbola landara edo sapia bacan antzean ipintzea, cergatic sarri edo junto ipiñiaz izaten da caltea modu ascoz: muintegua jorratzeco demboran, lurra ecin ondo compondua edo baneatua landarari zañic urratu gabe, eta lenengo aldatzeco asitzen diran landarac ateratzeco demboran. berac ta guerogogoco guelditzen diranac eritu edo maltratatu erremientaquin.

Gaizqui eguiten du necazariac, muintegua eguiten necatu ta guero arbola lan-

dara aldatu lur char samarrean ta gueroztic casoric ez eguiteaquin; cergatic eguiten dituan costu ta neque guciac diran alferric, ta gañera terrenoa ecertaco esperanza gabe ocupatua.

Arbolarequin aurreratzeco eguin bear dan gauza da, aldatu bear danbaso edo terrenoan, nun aldatzera convèni dan lecuac señalatuz, urte batez, ta obeago biaz, aldatzeco demboran eguin bear diran tamañaco zuloac eguitea, ta gañera moduac aguintzen badu hiñaurquin piscabat bota zuloetara, eguin ta guero ichitze-co demboran. Arbola landara muinteguiatic atera ta aldatzecoan, guelditzen da gauza eritu baten guisan, zañac ta adarrac ebaquita modu orretan arguitzen dalaco dago gauza guchiri beguira, igartu edo lurrari eldutzeco; beragatic conveni da, iñola ere albada, lenagotic zuloa eguitea, piscabat lurra usteldu ta gozatu dedin, ta onembeste ecin dezaqueanac ere, eguin bear dio gaztaña landarari, aldatuta urrengo urtetic asita, guchienaz chertatu bitartean, urtean bein ondoac achurtu, ta zaborreri piscabat ondoetara.

bota. Etortzen dira gogotic arbolac cembat terreno orbel edo hiñaurquiñic quentzen etzayon lecuan, sasarte ta onelaco lur gozoetan aldatu utsarequin, ta igual berenez sortuac; baña hiñaurquiña quenduaz lurra legortu eguiten da arbolarentzat, ta onegatic izaten da arbolari lagundu bearra, lurra eceric conservatuaz, ta gueyena indar gogotic artu bitartean. Arbola genero edo clase guciac mereci dute gobernatzea ta atencioa izatea, bacoitza tocatzen zayon terreno edo lecu moduan jarriaz; bada, guciac dira conveni dirañac; baña gucietatic gueyena necazaria aprofitatzen diranac dira gaztaña ta sagarra, beragatic oetaraco bear da atencio edo arreta aundiagoa.

Gaztaña arbola chertatzeco demboran ere cuidadua artutzeac, asco importa du, cherta zale aldan onenarequin eta aldan onguiena ipintzeco arbola; chertatzeco estaduaño ecarrita, utseguitea eguiten bada, eritua becela, ill da ez bada ere, guelditzen da ascotan arbola.

Gaztaña arbola iñausitzeco ere artu bear da cuidadua, esaera ere bada gaztaña nai

duanac, urte gucietan iñausi bear duala esquiña batean edo bestean, arbola sasoi-coa beti egon dedin esquiña batean edo bestean, fruta ona emateco. Iñausitzeco demboran ere artu bear da cuidadu chiquibat, eta da, arbola ascoc izaten dute cear-adarren bat edo gueyago azpian, eta oyetaco bat edo bi utcitzea arbola gazte edo sasoicoari; eta ez badu onela cearrea adarrie, zutzen gora dauzcan guciac ebaquitacoan, eguin bear zayo ondoan aizcorarequin cosca chiqui bat, arbola igartu ez dedin; bada arbola gazte edo sasoicoac icerdi aundia izaten du udaberrian, ta adar guciac quenduric badauzca, asco igartu eguiten dira beren icerdia edo indar aundiagatic, bada ondoan eguiten bazayo cosca chiqui bat, emendic botatzen du icerdia, ta emango ditu seguroago pujac.

EMEZORTZIGARREN ADVERTENCIA. CEÑETAN
 ERACUSTEN DAN: ARITZ ARBOLA IPINTZECO TA
 GOBERNATZECO MODUAREN GAÑEAN.

Aritz ezcurra ereiteco garairic edo dem-
 boraric onena da bildu ta bereala, bada
 guerogoaco gorde ezquero, ascoc eguin oi
 duten becela, erne gabe galdutzen dira
 asco, batzuac legortu ta besteac elcortu
 diran aitzaquian: bilduta bereala ereitea
 da, bada, ernetzeco seguroena.

Landara chiquia edo sapia muinteguiian
 dagoan bitartean conveni da, ta asco im-
 porta du, lagoreac becela ongui goberna-
 tzea. Jorrata sollqueta guciac eguin bear
 dira neguco illberatan, aritza da, bada, be-
 ti ill beran tratatu bear dan arbola gene-
 roa. Baso edo beste terrenoren batean al-
 datzeco, gaztañarentzat esan degun mo-
 duan, chit ona da aritzarentzat ere, urte
 batez benic, aurretic zuloac eguitea, lurra
 piscabat usteldu edo gozatu dedin, ta ar-
 bola igartu gabe lurrari eldu deyon. Guero
 urtero beñ ondoac achurtu neguco legor-

tetan, ta ostorie ez quendu gogotic indar artu bitartean.

Necazariantzat provechua emateco irugarren claseco arbola da aritza; bada echeitic eroso edo ongui aprovechatzeco moduan aritzti ona daucan necazariac, quentzen dio gauza asco arbola genero orri: ganadu janariac ugaritzeco ostoa, egurra, ta ganaduan azpiac eguiteco ta lurrarentzatgozagarria eguiteco orbela.

Aritzari ostoa cer demboretan ta nola quendu jaquin gabez, edo zabarqueriz perjuicio edo calte asco izaten da. Inñansi edo cortea eman bear zayon aritzari, quentzen bazayo ostoa Agoztuco illaren erdia pasa bitartean, ta particular muintegui ondo edo materialetaco auqueratutaco aritzari puntaraño sollduaz quentzen bazayo ostoa esan dan dembora orretara bitartean, calte aundia izaten du; cergatic dembora orretaraño izaten duan icerdi aundia arbola genero onec, ta modu orretan dagoala quendu ezquero adarrac, legorturic ta indar guciac quenduric escaituta guelditzen da. Egurrari cortea emateco dagoan aritzari ostoa quentzeco dembora da, lenago

esan degun becela Agoztuco illaren erditic aurrera; bada garai onetatic aurrera, ongui tratatuaz arbola, ostoa quendu arren, ezdu perjuicio edo calte aundiric izaten, cergatic icerdia asitzen zayon garai orretaraco; baña materialetaco auqueratucoari edo zuaritzari ez da conveni quentzea ostoric Agorreco illaren erdira bitartean, ta dembora onetatic aurrera ere, ta naiz neguan bada ere, bear da izan cuidadua guchi quentzeco edo solldutzecoa, buruadar regularra utcitzen zayola.

EMERETZIGARREN ADVERTENCIA. CEÑETAN ERACUSTEN DAN: PAGO A IPINTZECO TA GOBERNATZECO MODUAREN GAÑEAN.

Pagoaren ezcurra ereiteco dembora edo garairic escogituena edo auqueratuena da Azaroco illa.

Pago muintegua jartzeco lendanaz lurra compontzeco demboran, urratu diteque nai dan gucia lurra; baña gueroco jorra gucietan lurra guchi urratuaz edo arial erabillias eguin bear da; bada izaten duan

zañ gucia lur azalean ematen du, ta one-
 gatic lurra asco urratuaz erabiltzea calte-
 izaten du. Pago landara aldatu bear dan
 lecuan ere lendanaz zuloac eguin ta edu-
 quitzea gauza ona da, beste arbola clase
 gucientzat becela; baña aldatzeco dembo-
 ran conveni da, beste clase asco baño lur
 azaleagoan guelditzen dan moduan ipin-
 tzea arbola genero au. Izanic pagoa beste
 arbola genero asco baño gogorragoa, asco
 du gobernatzea iru edo lau urtean ondo
 achurtuaz, muinteguico moduan asal-sa-
 marrean; baña bada pagoarequin ere cui-
 dadu bat artu bearra, eta da: landara al-
 datzetic asita, guerozco jorra, solldutze,
 ta liñausqueta edo corte guciac ill berrie-
 tan eman bear izateá, arbola clase au one-
 la tratatzea nai duana edo conveni zayona
 dalaco bere calidadez. Pago arbola oso
 ugari ez badago iñausi bear dan lecuan,
 buru adarraren parte bi ebaquita irugarren
 parte ebaqui gabe utcita, gueyago, aun-
 diagoa ta seguroago ematen du puja.

OGUEIGARREN ADVERTENCIA. CEÑETAN ERACUS-
TEN DAN: URQUI ARBOLA IPINTZECO TA GOBER-
NATZECO MODUAREN GAÑEAN.

Urquia deitzen diogun arbolaren acia ereiteco dembora edo garairic escogituena edo auqueratuena da Azaroco illa. Baña izanic dificultade aundia duan generoa arbola onen acia ernezeco demboran, contu aundia artu bear da urquiaren acia bildutzeco demboran ongui eldua ote dagoan edo ez: guchi gora bera eldutzen da Urri illaren principioraco, eta dembora onetan contuz aciac bildu ta erein bear da esan degun becela. Azaro illean, ta lurra guiro edo sasoi onean dagoala.

Urquiaren acia ereiteco lurra compoundu bear da, soro ez dabillen terrenoa edo labaquia garia ereiteco compontzen dan moduan, lur azala erreta. Azaren acia botatzen dan moduan, botatzen da aci genero au ere, ta guero nastu legue bat eman bear zaye; baña acia ašal guelditzeco moduan.

Urqui arbola gobernatzan ez dago preciso neque aundiric eguin bearric guero; baña edoceñ generoc becela, onec ere nayago izaten du, casoric eguin gabe utcitzea baño negu principioetan solldutzen dala, piscabat laguntzea.

OGUEITABAT GARREN ADVERTENCIA. CEÑETAN ERACUSTEN DAN: PIÑU ARBOLAREN ACIAC EREITECO MODUAREN GAÑEAN.

Piñu aciác ereiteco dembora edo garairic escogituena edo auqueratuena ta onena da Marchoco illa. Arbola genero onequin ere eguin diteque muintegua; baña errazagoa da pinua jartzea pensatzen dan terrenoan bertan acia ereitea, cergatic muintegua eguin da, guero aldaeratan difficultade aundiac dituan ongui asmatzen. Piñua ipintzea pensatzen dan baso edo edoceñ terreno zacardiren batean, asco da eguitea bi oñ zabal dan erreca, sei bat oñ erreca batetic bestera guelditzen diran moduan, ta oñ bi zabaleco erreca hiqui oyec bacarric ondeatu ta compoundu urte

batez edo biz lenagotic asita, aciac erne-
tzeco lurra piscabat gozatu dedin. Erreca
oyec eguin bear dira goicetic ceñ aldetatic
eguzquiac jotzen duan terrenoa, arren
contrara, cergatic eguzquiac betero jotzen
baditu errecac goicetic, aci ernea ez dan
ongui escapatzen, edo ez dion utcitzen on-
gui ernetzen.

Piñuaren acia ereiteco modua da, ba-
neatu lurra erreca chiqui oyetan, ta ga-
riaren modura bota ayetara, ta guero nas-
tu bat eman, baña aciac azal samarrean
guelditzeco moduan.

OGUEITABI GARREN ADVERTENCIA. CEÑETAN ERA-
CUSTEN DAN: LIZAR, ARTE, TA ELORRI ZURIAREN
ACIAC EREITECO MODUAREN GAÑEAN.

Iru arbola genero oen aciac ereiteco
dembora edo garairic escogituena edo au-
queratuena da Azaroco illa. Iru arbola ge-
nero oen acietatic birenac diferenteac di-
ra ernetzen beste ascorengandic; eta dira,
lizarrarena ta elorri zuriarena. Artearen
ezcurra ernetzen da erein da urrengo uda-

berrian; baña elorri zuriarenac pasatzen ditu beti ernetzeaco bi urte. Lizarraren aciac ere pasatzen ditu bi urte ernetzen uda azquenean bildu ezquero; baña Agoztuco illean bildutzen bada, erein da lenengo urtean ernetzen da. Dembora edo garai batean bildu edo bestean bildu, urte bateco diferenci aundia ecartzen du ernetzen; ta modu berean beste ascorequin ere izaten da diferenci aundia, advertenci chiquiren bat artu edo ez artutzequin, ta ascotan diferenci aundiac izaten du importanci aundia ere.

Arbola genero gucian aciac conveni da guardatzea eceric bildu ta lurrean erein bitarte gucian; ta elorri zuriaren aciac, ongui eceric conservatzeco ta bigarren urtean ere ongui erneco badira, eduqui bear dira lurraren azpian sarturic; ta gañera ereiteco demboran lurra ongui baneatua, ta guiro edo sasoy onean egon beardo ondo ernetzeco ezquero.

OGUEITAIRUGARREN ADVERTENCIA. CEÑETAN
ERACUSTEN DAN: MUINTEGUIAC TA BESTE ARBOLA
CLASEAC CER TERRENO MODUTAN IPIÑI
BEAR DIRAN.

Arbola clase guciaquin conveni da muintegua eguitea, bere tamañara edo demborara allegatzen danean bertan utzi gabe aldatzeco idearequin ereite ezquero. Muintegua jartzeco ona da tupa lur me samarra izan arren, eguteran egon ezquero, bada eguteraco terrenoetan etortzen dan landara izaten da ascoz ere zañsuago, naiz eguteran ta naiz layotzean aldatzeco obeagoa, edoceñ terrenoetan ongui emateco material gogorragoa. Muintegui ondoan material gayac utcitzeco asmoa edo idea duanari, conveni zayo muintegua jartzea terreno layotz ta aldan aice ezcuetuenean, aundiagoa ta azcarrago materiala aci dedin; baño layotzean acitaco landara, eguteran acitacoa baño beragoa izaten da, ta muintegui layotzean acitaco landara, beriz ere layotzean aldatzea obeagoa da.

Guztioc icusten degun gauza da, arbolariac quenduaz, campoac direla oztutzen. Guizon zarrac esan oi digute, ta guztioe observatu dezaquegu, altura batera igotzean, ayen gazte demboratic erri ta campo gueyago icusten dala, orduan aibat erri orain ere egon arren, arbolariac quendu diralaco edo guchitu dielaco dembora aietatic orainá. Dudaric ez dago calteac datocela arbolariac quenduaz, campoac oztutzen dielaco, aiceac indar aundiagoa artutzen dutelaco, ta beste modu gueyagotara.

Gauza orri beguiraturic conveni da guztioe procuratzea aleguina arbola ipintzen, preciso soll eduquitzea conveni ez dan terreno edo paraje gucietan; onetaraco jaquitzen dala lenagotican cer arbola clase cer parajetan conveni dan onguena aprobechatzeco. Sagarra ta gaztaña conveni da ipintzea aldan terrenoric beroenean ta aice ezcutuenean, cergatic loraco demboratic asita fruta quendu bitarte gucian aiceac caltea eguin detzaquean genero oetan. Genero oec ecin eman duen lecuan, edo oenzaco aice lecu-samarrac diran lecuetan,


echetic aprobechua artutzeco moduan egon ezquero, conveni da ipintzea aritza, bada baso egui edo goenetan, gaztañac guchi ematen du ascotan, ta beti guero emateco esperanza eduquitzen dira, ta onelaco lecuraco chit ona ta conveni dana da aritza, cergatic gaztañaria asco berotu ta babestutzen duan, ta uda azqueneraco ganaduantzat ostoa ematen duan, ta gañera egurra ta hiñaurquin ona. Aritzaren provechuaz ecin baliatu ditequeanac, conveni da ipintzea terreno baju samarretan piñua, cergatic materialetan ematen duan aritzac berroguei urtean aibat ogueiean. Pinuarentzac altuaguia dan paraje moduetan ipintzea conveni dan arbola da urquia, ceña dan edoceñ terreno baldar edo zacarrean ere aldatu utsarequin gogotic etortzen dana, ta gañera edoceñ gauzataraco material fiña ta estimatua izaten duana. Paraje altu ta aice lecuetan ipiñi diteque pagoa, cergatic dan otz, bero, ta aiceari aguantatzeco arbolaric gogorrena.

Icusiric liburucho onetan necazariari ofrecitzen zayozcan arguitasunac, esan letzaque norbaitec, ez duala arguitzen neca-

zari apartetaecoen lagore genero mudatuaz edo berriaz contu edo notici aundiric. Arrazoyaz esango du; baña nic eranzungo diot: ascoc uste duan baño gueyago balio izaten du gauza genero berriac errazago ta gueyago baliatzeco billatu ezquero; bide onen ondoren asco ibilli izandu dira, eta nic ere eguin izandu ditut empeño edo prueba batzuac gariaquin eta artoquin. Gariac genero edo clase asco dira, ta gucietan, egoquiena billatzen deguna edo autu guenduena gure paraje onetaracozan Marzogarria, cergatic Marzoan ereinda, eldutzen dan, Azaroan ereindaco beste generoa orduco; onela Azarotic Marzora bitartean baliatu ditequean necazaria pagocha edo beste onelaco generoen bat eguinaz ganaduenzat; edo Marzora bitartean lurrari gueldi utciaz ta garbituaz bellar gaiztoetatic; baña icusiric frutu guchi ematen duana gure paraje oetan, diferenteac diralaco beste lecu edo paraje ascotaco aldean pasatu naiz ecer guchi esanda gauza onen gañean. Artoquin ere modu berean guertatcen da, bada erein arren Españiaco centroco edo estranjeriaco

aciac, ez degu billatu lenago costumbratzen degunac baño obeto ematen duanic.

Baita ere esan letzaque norbaitec liburu onetaco advertenci edo arguitasunac ez dutela eracusten Gaceta Agricola ta beste necazaritzaren gañean escribitutaco liburu ascoren erara. Leitu izandu ditut obra oyetaco batzuac, baña ez naiz baliatu ayetatic ecer, cergatic gure Provinci onetaco lurrac chit diferenteac diran beren calidadez, otz ta beroan, eta buñti ta legorrean beste provincietacotatic: eta ayetaco estudioetan ez da arguitzen, nere iritzian, oneraco balio duan gauza berriric.



BUCAERA.

Esqueintzen dizuet
Adisquide necazariac
Obra labor onetan
Dauden advertenciac:
Asco ulseguiteac
Izango dira jarriac,
Baña esperatzen det
Barcatutzea guciac.

Anciña asi nuan
Obra onen plana
Arguitu deseoa
Necazariangana:
Lagur estudioz
Ta naguia pluma,
Arguitzeco bildurra
Iñorengana.

Pobreac izan arren
Obra onetaco lanac,
Estimatuco ditu
Necazaria danac:
Divertitzeco dira
Euscaldun lagunac,
Atera bitartean
Gueyago daquianac.

LIBURU ONEC DACARTZIAN

ADVERTENCIAN

ARGUIBIDEA.

Necazari euscaldunari. 5

LENENGO PARTEA.

Lenengo advertencia. Ceñetan eracusten dan Munduan lenengo guizona ceñ izandu zan, ta ceren bitartez ditugun neque ta trabajuac. 12

Bigarren advertencia. Ceñetan eracusten dan: Duluvo edo udalde universal edo mundu guzticoa noiz izandu zan eta lurra nola elcortu ciran. 19

Irugarren advertencia. Ceñetan eracusten dan: Euscaldun errietaco necazarien artu-bideric aundiena certatic datorren. 34

BIGARREN PARTEA.

Laugarren advertencia. Ceñetan eracusten dan: Bigarren claseco necazarien gañean. 39

Bostgarren advertencia. Ceñetan eracusten dan: Irugarren claseco necazarien gañean. 43

Seigarren advertencia. Ceñetan eracusten dan: Laugarren claseco necazarien gañean. 49

IRUGARREN PARTEA.

Ganudu janariac ereiteco gañean eracusmenac.

Zazpigarren advertencia. Ceñetan eracusten dau: Alfalfa ereiteco moduaren gañean.

Zortzigarren advertencia. Ceñetan eracusten dau: Frañci-belarra ereiteco moduaren gañean.

Bederateigarren advertencia. Ceñetan eracusten dau: Itali-belarra ereiteco moduaren gañean.

LAUGARREN PARTEA.

Ganaduac gobernatzearen gañean eracusmenac.

Amargarren advertencia. Ceñetan eracusten dau: Guiraco edo laneraco aci bear dau ganadu ganaduaren gañean. 6

Amaicagarren advertencia. Ceñetan eracusten dau: guicentzeco ganaduaren gañean. 6

Amabigarren advertencia. Ceñetan eracusten dau: Cherri ganadua gobernatze co moduaren gañean. 7

BOSTGARREN PARTEA.

Necazari euscaldunac lagoreac ereiteco gañean eracusmenac.

Amairugarren advertencia. Ceñetan eracusten dau: Arbia ereiteco moduaren gañean.

Amalaugarren advertencia. Ceñetan eracusten dau. Artoa ereiteco moduaren gañean.

Amabostgarren advertencia. Ceñetan eracus-
ten dan: Garia ereiteco moduaren gañean. 86

SEIGARREN PARTEA.

Arbola aciác ereiteco gañean eracusmenac.

Amaseigarren advertencia. Ceñetan eracus- ten dan: Sagar arbola epintzeco ta gobernatzeco moduaren gañean.	90
Amazazpigarren advertencia. Ceñetan era- sten dan: Gaztaña arbola ipintzeco ta guber- natzeco moduaren gañean.	95
Emezortzigarren advertencia. Ceñetan era- usten dan: aritz arbola ipintzeco ta guber- natzeco moduaren gañean.	99
Emeretzigarren advertencia. Ceñetan era- usten dan: Pagoa ipintzeco ta gobernatzeco moduaren gañean.	101
Ogueigarren advertencia. Ceñetan eracusten dan: Urquia arbola ipintzeco ta gobernatzeco moduaren gañean.	103
Ogueitabatcarren advertencia. Ceñetan era- usten dan: Pinua arbola ereitceco moduaren gañean.	104
Ogueitabigarren advertencia. Ceñetan era- usten dan: Lizar, arte, ta elorri zuriaren aciác ereiteco moduaren gañean.	105
Ogueitairugarren advertencia. Ceñetan era- usten dan: Muinteguiac ta beste arbola cla- re cer terreno modutan ipiñi bear diran.	107

